

## Herririk herri

Euskal Herriko abentura parke handiena inauguratuko dute gaur, Otxandion > 2



**Iurretako  
jaiak  
2013**

## “Oinezkoak, bizikletak eta kotxeak batera bizitzeko ahalegina egin behar dugu”

Sigi-Saga herri barruko txirrindulari eta zikloturista elkarteak Mugikortasunaren Astean Durangoko Udalaren diploma jaso du. Bidegorrien inguruan udal araudia sortu, eta betearaztea gurako lukete > 2



Ezkerretik eskuinera, Iban Marcos, Igor Ibazeta, Fernan Ruiz, José Martinez, Juan Mari Txintxurreta, Patxi Torregrosa eta Oscar Martinez, Sigi-Saga elkarteko kideak.

## Kalean topatutako txakurrak adoptatzeko kanpaina jarri du martxan Berrizko Udalak > 7

Momentu honetan Iurretako Zaunk zentroan hiru txakur dauzka Berrizko Udalak bere kargu

Behar zaitut lemapean, kalean topatutako txakurrak adoptazioan jartzeko kanpaina hasi du Berrizko Udalak. Momentu honetan, udaletxeko langileek kaletik batutako hiru txakur Iurretako Zaunk zentroan daude. Bertako egonaldiarengatik udalak zortzi euro ordaintzen ditu egunean. Txakurren ja-

beengan kontzientziazioa landu gura du udalak. “Txakurrak lotuta eroan beharko lituzkete, eta kakak batu”, azaldu zuen atzo, kanpaina ezagutzera emateko antolatutako prentsaurrekoan Orland Isoird alkateak. Txakurrak libre ibiltzeko espazioa ipintzea aztertzen dabilzala ere azaldu zuen.

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea 71C  
48240 BERRIZ  
94 682 45 50  
www.alkimax.com  
alkimax@alkimax.net

### Durango > 2

Merkataritza euskararen presentzia handitu gura dute

### Durangaldea > 3

Likidazio planak aurrera jarraitzen du Mendiguren y Zarrauan

### Elorrio > 6

Kiroldegiko kuota integralen inguruan eztabaida sortu da

### Zaldibar > 7

Auzolanen garbituko dute dorretxe inguruko sasitza

# Herririk herri

> DURANGO

## Herri barruko txirrindularitza bultzatu guran

Udalak Sigi-Saga elkartearen saritu du mugikortasun jasagarriaren alde egiten duen lana dela-eta

> JONE GUENETXEA

Sigi-Saga herri barruko txirrindulari eta zikloturista elkarteak Mugikortasun Jasagarriaren Astearen jaso du Durangoko Udalaren diploma. Elkarteak, baina, urteko gainerako asteetan ere lanean dihardu herri barruko txirrindularitza bultzatzen.

Asteon, Lehen Hezkuntzako ikasleei ikastetxeetara bizikletaz edo monopatinez joaten lagundu diete. 9-12 urte arteko gaztetxoekin batzeko bilguneak

Asteon, LHko ikasleei ikastetxeetara bizikletaz edo monopatinez joaten lagundu diete

jarri dituzte: Hizkuntza Eskola, Tabirako zubia, San Fausto, Txibitena, Andra Mariko elizpea, Sasikoa, Institutu aurrea eta Askatasun Etorbidea. Bidean, ikasleek bizikleta eta monopatin karabanagaz bat egin dute.

Patxi Torregrosa elkarteko kideak azaldu duenez, “egunetik egunera jende gehiago dator”. Patineta ei da gazteen artean arrakasta handiena duen garraiobidea. Iaz egun biko ekimena izan zena, aurten, aste osora zabaldu dute.

**Elkartearen sorrera**

Herri barruko txirrindularitza bultzatzeko asmoz sortu zuten Siga-Saga elkartearen 2010. urtean. Urteotan, bidegorriak herrian zabaltzen doazela ikusi dute. Geroago eta durangar gehiagok kotxea utzi, eta bizikleta erabiltzen dute herri barruan alde batetik bestera joateko. Durangoko Udalaren datuen arabera, azken hiru urteotan, bizikleta

“Bidegorrien inguruan, udal araudi bat sortu eta betearazteari garrantzitsua deritzogu”



Sigi-Saga elkartearen 2010. urtean sortu zen.

joan-etorriak %7 igo dira. Iazko datuek ziotenez 250 ikasle inguru joaten da egunero bizikletaz eskolara. 10 kilometroko bidegorri sarea du Durangok. Hala ere, Sigi-Sagako kideen berbetan, bidegorriak herrigunean lotzea

geratzen da, eta baita Durangaldeko beste herriekin lotzea ere.

Bidegorri sarea hobetuz doala aitortu arren, lan handia dagoela egiteko gogorarazi dute: “Udal araudi bat sortu, eta betearazteari garrantzitsua deri-

tzogu. Oinezkoak, ibilgailuak eta bizikletak elkarrekin bizitzeko ahalegina egin behar dugu. Batzuetan bizikletaz goaz, baina beste batzuetan oinezkoak edo gidariak ere bagara, eta elkar ulertzea beharrezkoa da”.

## Mugikortasunaren inguruko ekitaldiak

Europako Mugikortasun Jasagarriaren Astearen egitarauaren barruan hainbat ekitaldi prestatu dituzte biharko, Ezkurdi eta Zumalakarregi kaleetan, 11:00etatik 14:30era. Bizikleten bigarren eskuko merkatu librea, bidegorriak

ezagutzera emateko ibilbidea, ibilgailu elektriko eta hibridoaren erakusketa, eta herri-bizikletaren erakusketa eta konponketa tailerra prestatuko dituzte. Arratsaldean, umeentzako jolas parkea eta herri-kirolak izango dira.

Dokeman, Kotxerik Gabeo Egunean, Landaederrara herri ibilaldia egingo dute. Irteera puntua Herria taberna izango da, eta oinez zein bizikletaz egin ahal izango da. Gainera, irteera horretan aterpe berritua ezagutzeko aukera eskainiko dute. Arratsaldeko 19:30ean, berriz, Txintxaun antzerki taldeak kale antzerkia eskainiko du Andra Mariko elizpean.

## Merkataritzan euskararen presentzia handitu gura dute

Merkataritzan euskararen erabilera indartu gura dute kanpaina berri batez

> M.O.

Durangoko Udalak *Guk euskeraz* izeneko kanpaina ipini du martxan, herriko saltokietan euskararen erabilera indartzeko asmoz. “Ahoz zein idatziz, euskarari bultzada eman gura

diogu merkataritzan”, azaldu du Andoni Iruarrizaga zinegotziak. Irailetik abendura bitartean, Euskara saileko langile Goiatz Etxeita dendarik denda eta tabernarik taberna ibiliko da udaleko aholkularitza zerbi-

tzuaeren informazioa ematen. Proposamen bat egingo die: errotulazioa gaztelaniaz edukiz gero, euskarara aldatzea. Onartzen badute, udalak diruz lagunduko du diseinu aldaketa. Webguneekin ere gauza bera egingo

dute. Urriaren 31ra arte egongo da laguntzak eskatzeko epea; dagoeneko zortzi eskaera jaso dituzte. Kanpainaren ondorioz, datozen urteetako eskaerak igotzea ere espero dute.

Bestalde, merkatarien beharrak identifikatu, eta euren zantzak argitzen laguntzea ere izango da Etxeitaren lana. Hartueman zuzenari garrantzia emango diote. Merkatarien ohiturak iraultzea gura dute, Etxeitaren arabera: “Ea lortzen dugun euskararen presentzia handiagotzea”.

**Dendak Bai-ren babesa**

Toni Atutxa teknikariak esan du merkataritzako hizkuntza paisaian euskararen presentzia handitzea dela helburu estrategikoa. Euskararen Aholku Batzordean merkataritzan “astindu” bat behar zela ondorioztatu ei zen, eta kanpaina berria Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan dago.

Kanpainak Dendak Bai elkartearen babesa daukala adierazi du Araceli Guerrero ordezkariak. Eta udaleko sustatzaileek ekarpen hori eskertu diote.

## Osasun sailburuaren agerraldia eskatu du EH Bilduk

> M.O.

Sindikatuak salatu dute Durangoko larrialdietako beharginak zigorrekin mehatxatu egin dituela Osakidetza zuzendari Jon Etxeberriak. Bada, adierazpen horien inguruan Jon Darpon osasun sailburuak daukan iritzia jakin gura du EH Bilduk. Jaurlaritzaren jarrera txarretsi du koalizioak: “Langileen iritzia entzun, eta euren ekarpenak kontuan izan ordez, aldekarreko erabakiak hartzen ditu, langileak mehatxatzen ditu, eta euren izena zikitzen du”.

Bestalde, Euskadiko Medikuen Sindikatuak beharginak babestu ditu, eta adierazi du Etxeberriaren esanek “forma autoritarioak” islatzen dituztela. Osakidetza zuzendaritza kritikatu du: “Inor ez da etorri beharginekin zentroko beharrianak aztertzea”. Langileak arduratsuek direla gaineratu du sindikatuak.



Iker Ajuriagerra -Euskara saila-, Araceli Guerrero, Andoni Iruarrizaga, Toni Atutxa eta Goiatz Etxeita.

## Goienkaleko jaiak musikaz beteta datoz

>M.O.

Gaur hasiko dira Goienkaleko jaiak. Mesedeetako Ama Birjina da, berez, patroia, irailaren 24an, eta data horren bueltan eratu ohi dira jaiak. Dendak Bai elkarteko hainbat tabernek bultzatzen dituzte egitarauko ekitaldiak. Aurtengo edizioan musikaz beteko da Goienkale.

Gaur, 19:00etan ekingo diote ospakizunari, trikipoteoagaz. Ostean, aurrekuia dantzatzuko dute. Bihar, 12:30ean, musika bandaren kontzertua egongo da, eta arratsaldean, igel zein mus txapelketak. Goiz eta arratsaldez umeen jolasak eskainiko dituzte, gainera. 19:00etan txarangagaz poteatzeko gonbita egin dute, eta gauz erromerian batuko dira Zesuma taldeagaz. Domekan umeentzako tailerrekin hasiko dute eguna, 12:00etan. Gero, txarangak alaituko du eguerdiko giroa.

### Amaiera, patroia

Martitzenean amaituko dira Goienkaleko jaiak, patroia egunean. Jubilatuen bazkaria egingo dute 14:00etan Anboto tabernan, eta arratsaldeko 19:00etan meza ospatuko da Santa Anan.

>DURANGALDEA

## Likidazio planak aurrera darrai Mendiguren y Zarraua enpresan

Konkurto administratzaileek enpresaren egoera ekonomikoa aztertu dute



Ekainean, langileak lan hitzarmena aldarrikatuz greban zeudela iragarri zieten likidaziorako tramiteen hasiera.

>ITSASO ESTEBAN

Abadiño eta Berrizko lantokiei eragiten dien likidazio planak aurrera darrai Mendiguren y Zarraua enpresan. Azken asteetan enpresaren egoera aztertu dute konkurto administratzaileek, eta enpresa erosiko duen jabe berria bilatzeko prozesua hasiko dute orain.

Luis Torres ELA sindikatuko ordezkariak azpimarratu duenez, "konkurto administratzaileek eurek ere esan duten bezala, bideragarria da enpresa hau: Mercedes bezero garrantzitsua

ELA: "Konkurto administratzaileek eurek esan duten bezala, enpresa bideragarria da"

galdu arren, beste bezero batzuen eskaria hazi egin da azken hilabeteetan". Enpresa likidazio prozesu betean egon arren, lanean jarraitzen dute enpresak Abadiñon eta Berrizen dauzkan lantokieetako 241 langileek.

Eskariak badituzten arren, ELAko ordezkariaren berbetan, "ziurgabetasun handia" bizi dute langileek: "Orain arte nominak sasoiz jaso ditugu, baina konkurto administratzaileek ohartarazi dutenez, egoera honetan hiru-lau hilabetez iraun dezakegu, gehienez".

Hitzarmenaren gutxiengo baldintzak mantentzea eskatzeko greba hasi zuten MZko langileek ekainean, eta greban zeudela iragarri zieten enpresaren arduradunek likidaziorako tramiteak abiatu zituztela.

>ABADIÑO

## Emakumeentzat tailer ugari eskainiko du udalak

>I.E.

Emakumeen arteko eztabaida eta prestakuntzarako guneak eskaintzeko asmoz, Emakumeen jabeak Eskolaren bigarren edizioa eskainiko du Abadiño-ko Udalak. Aurten hiru ikastaro eta tailer gehiago eskaini dituzte: hamaika, guztira.

Urritik maiatzera egingo dituzte ikasturte honetako Emakumeen jabeak Eskolaren saioak, eta zabalik dago izen-ematea. Udaletxean, Errota edo Txanporta kultur etxeetan, edo [berdintasuna@abadiano.org](mailto:berdintasuna@abadiano.org) helbidera mezua bidalita eman daiteke izena.

Dantza sortzailea, teknologia berriak eta bilobak zaintzen dituzten amamen bizi-kalitatea hobetzeko ikastaroa dira Abadiño-ko Emakumeen jabeak Eskolaren bigarren edizioa eskaintzaren nobedade nagusiak.

Iaz harrera oso ona eduki zuten hainbat ikastaro eta tailer ere mantenduko dituzte ikasturte honetan: literaturari buruzko ikastaroak, Afrikako dantzena, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa, autodefentsa, etab.

>IZURTZA

## San Iurgik ez du ehizarako paserik kudeatuko aurten

Aldundiak lehenengo baietz, eta gero, ezetz esan die, ez dutela boletinean argitaratzeko astirik izan

>J.D.

Hainbat izurtzarren artean oraintsu sortu duten San Iurgi Ehiza eta Arrantza Elkartek ezingo ditu Izurtzako uso eta oilagor paseak kudeatu aurten. Bizkaiko Foru Aldundiak banatzen ditu ehizaren inguruko pase horiek, eta San Iurgi elkartetik jakinarazi dutenez, bere sasoian eskaerak egin zituzten, eta "abuztuan Aldunditik gutun bat bidali ziguten oilagor ehizaren heren bat utziko zigutela esanez", adierazi du ehiza elkarteko Jesus Mari Bikandik. Hau

Paseak aprobetxatzeko Mugarrara batu edo ez erabaki behar dute aurten

da, Aldundiak, esaterako, eguneko sei pase zehaztuko balitu, horietako bi izango lirarteke San Iurgirentzat.

Sorpresa desatsegina joan zen astean jaso zuten. Aldunditik deitu, eta esan zieten ez

zutela astirik izan behar ziren agiriak Bizkaiko Boletin Ofizialean argitaratzeko, eta, ondorioz, ezingo zieten ez oilagor eta ez uso paserik eman.

### Elkarteen erabakia

Beraz, Mugarra Ehiza eta Arrantza Elkartek kudeatuko ditu pase horiek. Gauzak horrela, aurtengo paseetan parte hartu gura badu, aukera bakarra geratu zaio San Iurgiri. Elkarteak desegin, eta Mugarrara batzea. Horixe da joan zen astean elkartek biek egindako batzarretik ateratako ondorioa. Bikandiren esanetan, "hori ez da nik hartu beharreko erabakia, elkarteak osatzen dugun denon artean hartu beharrekoa baino". Beraz, urri amaieran, San Iurgi elkarteko kide guztiekin batzar bat deituko dute. Bertan bozketak egingo dute aukera biren artean: San Iurgi bertan behera uztea eta Mugarrara batzea aurtengo paseei etekina atera ahal izateko, edo elkartegaz aurrera jarraitzea eta aurten Izurtzako pase barik gertzea.

>MALLABIA

## Baserritarrentzako marketin eta informatika ikastaroa

Urriaren 23tik 30era eman daiteke izena udaletxean zein online, Lanbideren aplikazioan

>JONEGUENETXA

Mallabia eta Ermuko udalen artean baserritarrei zuzendutako ikastaroa antolatuko dute. Irailaren 23tik 30era udaletxean eta Lanbideren aplikazioan, online, eman ahalko da izena. Ikastaroaren izena *Marketin elektronikoa eta informazioaren teknologia berriak (NTIC)* da. Astearte, asteazken eta ostegunetan 9:00etatik

>MAÑARIA

## Euskara ikasteagatik diru-laguntzak emango dituzte

>M.O.

Mañariko Udalak euskara ikasiko duten herritarrek diruz lagunduko ditu. Ikasleek irailaren 27ra arteko epea daukate laguntzak eskatzeko. Udaletxean aurkeztu behar dituzte hurrengo fotokopiak: ikastaroaren matrikula, nortasun agiria eta kontu

14:00etara izango dira eskolak, urriaren 8tik abenduaren 12ra. Landa inguruneke ekintzaileei, eta nekazaritza zein abeltzantza sektorean dihardutenei zuzenduta dago. Enpresaren finantza azterketa, marketina, enpresen plangintza, kontsumitzailearen jokabidea eta ingurua-enpresa-bezeroa leialtzea bezalako gaiak landuko dituzte.

korrantea. Ordainketa osoaren %80 jaso ahal izango dute ikasleek. Barnetegiei dagokienez, diru-laguntza %30ekoa izango da.

### Bestelako laguntzak

Kirolerako eta ikasleen garraiorako ere badago laguntzarik. Horiek ere hilaren 27ra arte eskatu ahal dira. Kanpoko kiroldegietan ibiliko direnek, erroldatuek eta kanpokoek ordaintzen dutenaren arteko aldea jasoko dute. Garraio arlokoa, unibertsitatean edo Lehen Hezkuntzan dabilzanek jaso ahalko dute.

>ATXONDO

## Udal langileekin hitzarmena adostu dute

>J. DERTEANO

Asteleheneko udalabatarrean Atxondoko Udaleko langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartu zuten. 2013an eta 2014an egongo da indarrean hitzarmen hori. Gobernu taldearen (Bildu) aldeko botoekin onartu zuten. EAJko hiru zinegotziek abstenitzea erabaki zuten.

Espainiako Gobernuak indarrean ipinitako lege bik arautzen duten mugen barruan negoziatu dute hitzarmena: Aurrekontuen Egonkortasunerako Legea eta Estatuko Aurrekontuen Lege Orokorra. Hitzarmena esparru horren barruan landu dutela azaldu zuen Rosa Elizburu alkatetik, nahiz eta ez dauden ados, "langileentzako murrizketak dakartzalako". Atxondoko langileek ordezkari sindikal bakarra dute, eta ELAkoa da. ELAk bidali zuten proposamena oinarri hartuta, adostasunak bilatzen saiatu da udala.

Hitzarmena lantzerako orduan Izurtza eta Mañariko udalekin jardun dutela ere azaldu zuten. Proposamen hori abiapuntutzat hartuta, Durango eta Berriz lako herrietan ere indarrean daude hitzarmenak.

**> OTXANDIO**

# Euskal Herriko abentura parke handiena inauguratuko dute

Gaur, Hontza Extrem abentura parkea inauguratuko dute Otxandiotik Oletarako bidean; bihurtik aurrera bisitarien zabalik egongo da

**> JOSEBA DERTEANO**

Abuztua azpiegitura guztiak behar moduan atontzeko erabili ostean, Hontza Extrem abentura parkea gaur, 19:30ean, inauguratuko dute. Bertaraten diren guztiei abentura parkea osatzen duten azpiegiturak erakutsiko dizkiete bisita gidatu baten bidez. Ondoren, abentura parkeko harrera gunera bueltatu, eta bisitarien dudak argitu eta iritziak jasoko dituzte. Zapatutik aurrera, egunero egongo da zabalik.

Hontza Extrem abentura parkea, Otxandiotik Oletarako bidean, Olazar deitzen den ingurunean kokatuta dago, eta Otxandion bizi diren hiru lagun-ekimena da, Joseba Gar-

tzia, Josu Abaunza eta Ainara Balantzategirena. Parkeak 2,5 hektarea ditu, eta hedaduraz Euskal Herriko abentura parke handiena da. Aisia eta kirola uztartzeko helburuagaz, jarduerak guztiak naturagaz eta ingurumenagaz kontaktatu zuzenean burutuko dira. Hiru jarduerak nagusi dituzte: zuhaitzetako ibilbideak, arku-tiroa eta zuhaitzetako eskalada.

Zuhaitzetan zehar sei ibilbide eskainiko dituzte. Horietako bat (Mirugain gunea) gaztetzoei zuzenduta dago: 1,40 metro baino gutxiago neurtzen dutenentzako. Gainerakoak altuera horretatik gorakoentzat dira. Ibilbide bakoitzak hainbat erronka (zubiak, tunelak, sareak...) aurre-

kusten ditu, eta parte hartzaileen abilezia eta ausardia neurtuko ditu. Erronka denak modu seguruan egin daitezke, parte hartzaileak une oro arnes batez segurtatuta egongo direlako. Hala ere, erronkaren bat egin gura ez duenak, ibilbideagaz aurrera jarraitzeko aukera izango du, bigarren bide errazago bat dutelako ibilbide denek.

Zuhaitzetako eskalada gunek, aldiz, oreka, psikomotrizitatea eta konfiantza lako esparruak jorratzeko aproposak direla diote sustatzaileek. Eskaintza horiez gainera, abentura parkeak beste hainbat azpiegitura ditu: apartakalekua, denda, jateko gunea... Informazio gehiago [www.hontzaextrem.com](http://www.hontzaextrem.com) webgunean.



Otxandioko abentura parkeko irudiak.

**> IURRETA**

## Eskolatze gastuei begira, 12.500 euro

Diru-laguntza eskatzeko epea amaituta, 339 eskari jaso dituzte udalean, eta 317 onartu dituzte

**> AITZIBER BASAURI**

Herriko familiei seme-alaben hezkuntza dela eta eduki ditzaketan gastu orokorretan laguntzeko 12.500 euro bideratuko ditu udalak, aurten. Diru-laguntza eskatzeko epea amaituta, 339 eskari jaso dituzte, eta horietatik 317 onartu: 22 ez dituzte onartu, beharrezko eskakizunak betetzen ez zituztelako. Iaz baino 52 eskari gehiago batu ditu udalak.

Aurten, 317 eskari onartuta, erabilgarri dagoen, eta deialdian adierazitako aurrekontuaren zenbatekoa gailendu da.

Beraz, guztien arteko banaketa proportzional egokia egin dute, %90,84koa. Aurten, 405 euro gehiago banatu dira.

**Eskari guztien arteko banaketa proportzional egokia egin dute; %90,84koa.**

Diru-laguntzak orokorrak izan direnez, onuradunek antzeko zenbatekoa jaso dute derrigo-

rezko hezkuntza bereizten den aldi bakoitzean: Haurreskolan, 90,84 euro; HHn, 18,17 euro; LHko 1. eta 4. mailen artean, 27,25 euro; LHko 5. eta 6. mailen artean, 40,88 euro; eta DBHko 1. eta 4. mailen artean, 68,13 euro.

**Emakumea eta kirola**

Kirol jardueretan andreen parte hartzea sustatzen dituzten ekintzak ere lagunduko ditu Iurretako Udalak. Jaurlaritzako erregistroan izena emanda, eta egoitza soziala Iurretan daukaten kirol elkarteak dira onuradunak; 2.500 euroko atala lotu dute. Kirol jardueraren bat modu banakakoan praktikatzeko duten iurretarek ere eskainiko zaie diru-laguntza (emakumeen kasuan %50 gehiago): gehienez, 200 euro (emakumea bada, 300). Urriaren 11ra arte egin daitezke eskariak.

*“Mundu osoak parte hartzeko parkea eraiki gura genuen”*



Josu Abaunza

**Zer egingo duzue gaurko inaugurazio ekitaldian?**

Azpiegiturak bisitatu gura dituzten guztiei gonbita luza-tu diegu. Bisita gidatua hasi aurretik lunch bat eskainiko dugu. Ondoren, abentura parkeko zirkuituak bisitatuko ditugu, azpialdetik, zuhaitzetara igo barik. Gero, harrera gunera bueltatuko gara, eta batukada bat egongo da. Ondoren, seguru, herrigunean ere jaiak apurren bat jarraituko duena.

**Abuztuaren irekitzeko asmoa zenuten eta azkenean irailera atzeratu duzue.**

Kontu bategatik edo beste bategatik, atzeratzen joan dira eraikuntza lanak, baina azkenean heldu da eguna! Azken batean, horrelako ekimen bat martxan jartzeko hamaika lan daude, eta egunotan ere hementxe gaude, asteburuak barne, dena prest egon dadin.

**Eskaintza zabala da, eta ibilbideak askotarikoak. Nork diseinatu ditu?**

Zuhaitzetako ibilbideak, eta ibilbide horietan dauden erronkak (tirolinak, zubiak eta abar) diseinatzeko Frantziako enpresa bat kontratatu dugu. Esperientzia zabala dute horrelako planak egiten. Lehen proposamen bat bidali ziguten, eta horri guk gure ekarpenak egin genizkion. Orain parkean ikusi daitezkeen proiektu horren guztiaren emaitza da.

**Zer irizpideren bueltan diseinatu dira ibilbideak?**

Alde batetik, mundu guztiak egiteko moduko zerbaitekin gura genuen. Bestetik, zirkuitu bakoitza erronka bat izatea ere gura genuen. Bien arteko uztarketa bilatu dugu. Horregatik, erronkaren bat egiteko kapaz sentitzen ez denak bide alternatibo bat izango du, errazagoa. Modu horretara, denek jarraitu ahalko dute ibilbidean aurrera.

**Abentura parkea egunero zabalduko duzue?**

Bai, asteke zazpi egunetan eta urteko 365 egunetan. Astelehenean egunero, 10:00etatik 17:00etara neguan, eta 10:00etatik 19:00etara udan. Barikutik domekara, al-diz, 18:00ak arte neguan, eta 21:00ak arte udan.

**Zer aukera du Otxandion gaua igaro gura duenak?**

Proiektuaren oinarrietako bat turismoa erakartzeko herrian sinergia sustatzea izan zen. Herriko landetxe eta jatetxeekin berba egin, eta denen artean pack berezi batzuk osatu ditugu. Horietako batek, adibidez, lo egiteko tokia edo bazkariak, eta parkerako sarrera batzen ditu.

**> GARAI**

## Martitzenean hasiko da jubilatuen aste kulturala

San Migel eguna bazkariagaz ospatuko dute

**> M.O.**

San Migel egunaren bueltan aste kulturala ospatu ohi dute Garaiko nagusiek. Izan ere, santu horren izena daroa jubilatuen elkarteak. Urtero, hainbat ekintza egiten dituzte, eta San Migel eguna, irailaren 29an, bazkariagaz ospatzen dute. Aurten ere antolatu dute egitaraua, eta martitzenean hasiko dute jaiak.

Karta jokoekin lotutako ekintzak egingo dituzte lehenengo. Martitzenean, irailaren 24an, briska txapelketan batuko dira. Eguaztenean, tutean jokatu dute, eta egunero musean. Hiru hitzorduak 17:30ean izango

dira, azaldu dutenez. Horrez gainera, tortilla txapelketa ere egingo dute egunero, tutean jokatu ostean. Lehiaketa horien guztien sariak San Migel egunean emango dituzte, bazkalostean.

**San Migel egunez, bazkaria**

Bazkaria izan ohi da San Migel eguneko ekintza nagusia. Horren aurretik, baina, hildako bazkideen omenez ospatuko den meza egongo da, 10:30ean. Gero, 14:00etan elkartuko dira Herriko Tabernan bazkaltzeko. 28 euroko menua eskainiko dute, eta apuntatzeko azken eguna bezpera izango da.

**Klik! >**



komunikabideak

# Anbotoren argazki lehiaketa "12hilabete, 12 herri"

Lagundu iezaguzu 2014ko egutegia osatzen.



## Sariak

Argazki irabazlea: 300€

Paisaiarik onena: 200€

Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 31.

Informazio gehiago: [anboto.org](http://anboto.org)

**> ELORRIO****Urriaren 1ean hasiko da Guraso Eskola Txintxirrin**

Txintxirri ikastolan Guraso Eskola garatuko dute, eta izena emateko aukera dagoela jakinarazi dute. Urriaren 1ean hasiko da, eta ikasturtean zazpi saio izango ditu. Nerea Mendizabalek emango ditu saioak; psikopedagogo eta gizarte hezitzailea

Nerea Mendizabalek emango ditu saioak; psikopedagogo eta gizarte hezitzailea da

da Mendizabal. Irailaren 24ra arte eman ahal da izena ikastolan bertan, edo ikastolara deituta.

Hurrengo saioak data hauekin izango dira: azaroaren 5ean, urtarrilaren 7an, otsailaren 4an, martxoaren 4an, maiatzaren 6an eta ekainaren 3an. 17:30etik 19:30era izango dira eskolak.

**Kiroldegiko prezioen inguruko polemika**

Herrian eztabaida sortu da kiroldegirako kuota integralen inguruan; Mujikak ezeztatu egin du

**> MARKEL ONAINDIA**

Azken egunetan eztabaida sortu da herrian kiroldegiko prezio berrien inguruan. Kartel anonimoak agertu dira, udalak ustez egingo lukeen moldaketa baten harira. Kritika horren arabera, igerilekua eta gimnasioa erabiltzeko kuota bakarra ezarriko litzateke. Horrek, igerilekuak bakarrik erabiltzen dituzten herritarrentzako prezio igoera ekarriko luke. Bada, Joseba Mujika alkateordeak (EAJ) salaketa ezeztatu du. Esan du kuota integrala eskainiko dutela, baina zerbitzuak era isolatuan ordaintzeko aukera ere egongo dela.

Hori da, behintzat, gobernu taldearen asmoa, Mujikak azaldu duenez. Izan ere, oraindik ez dago erabakita. Prezio publikoen tarifa berriak aztertzen

dabiltza, baina proposamena zehaztean kirol batzordetik eta udalbatzatik pasatu beharko da onartua izateko.

**Bestelako bertsioa**

Kiroldegian esan dute oraindik ez dakitela zer tarifa egongo den. Baina, antza denez, kuota bakar edo integrala ezarri gura zen hasieran, eta hainbat erabiltzailek egindako kexen ondorioz, berriro prezioak aztertzen dabiltza.

Bilduko Idoia Buruaga zinegotziak hari horretatik egin du berba. "Azken momentuan herritarren haserrea ikusi dutenean, aldatzea erabaki dute". Batzordean landu zela esan du, eta EAJk kuota integrala aurkeztu zuela, alternatiba barik. "Ez genuen tarifa horien alde egin, ez gaudelako ados".



Prezioen inguruan kartel anonimoak agertu dira kalean, baita kiroldegian ere.

**Gurutze Gorriko zerbitzua asteburuetan**

Joan zen asteburuan ipini zuten martxan zerbitzua Aldapebeitia Jauregian; ambulanzia dago bertan

**> M.O.**

Gurutze Gorria larrialdietako zerbitzua eskaintzen hasi da asteburuetan. Joan zen asteburuan ipini zuten martxan Aldapebeitia Jauregian. Barikuetan, 21:00etan hasiko dira beharrezko materiala ere edukiko dute. Anbulantzia egongo da bertan, eta horrela, Elorriko aspalditik egon den eskaera beteko da asteburuetan.

Udalak Aldapebeitia Jauregiko lau gela utzi dizkio Gurutze

Gorriari. Horrez gainera, bertako kostuak ere ordainduko ditu: ura, argia eta telefonoa. Gurutze Gorriak boluntarioekin beteko du ordutegia, eta ambulanziaz gainera, Osakidetzak eskatzen duen beharrezko materiala ere edukiko dute.

Udalak eman du albistearen berri prentsa ohar bidez, eta Ana Otadui alkateak iritzi positiboa agertu du: "Albiste ona da, bai Elorrirentzat, bai inguruko herriarentzat. Izan ere, inguruan

dagoen baliabide faltaren ondorioz, eurek ere aprobetxatuko dute".

Elorriko anbulantzia zerbitzua ezartzeko ahalegina atzeragotik dator. 2011n Otadui Gurutze Gorriko ordezkariekin batzen hasi zen, akordio bila. Baina, aurrekontu handia izango litzateke eta, egitasmoak ez zuen aurrera egin.

Orain, tratua egin dute. Momentuz, asteburuetan eskainiko du zerbitzua Gurutze Gorriak.

Barikuetan, 21:00etan hasiko dira beharrezko materiala ere edukiko dute

**Elorrioko Biran batuko dira herritarrak domekan**

Elorrioko auzoak eta mendiak zeharkatuta, txango bat egitea da asmoa

**> M.O.**

Hemezortzigarrenez ospatuko dute Elorrioko Bira, domeka honetan. Erdella Mendizale Taldeak antolatzen du ibilbidea, jai giroan garatzeko, lehiari lekua egin barik. Antolatzaileek eurek diote ibiltzeko ekimena dela, ez dela lasterketa. Elorrioko auzoak eta mendiak zeharkatuta, txango bat egitea da asmoa.

Goizeko 07:30ean irtengo du mendizale taldeak plazatik. Besteak beste, Memaia, Udalaiz, Intxorta, Erdella, San Lorentzo, eta Berriozabaletatik pasatuko

da, berriro ere, plazan amaitzeko. Antolatzaileek diotenez, partaidearen arabera gutxienez bost ordu eta erdi iraungo du, eta gehienez zortzi. Guztira 31 kilometroko ibilbidea da.

**Bira txikia**

Ahalik eta jende gehien animatzeko helburuz, Bira txikia ere eratu dute. 09:00etan hasiko da plazan, eta Nebera, Memaia, Besaideko bidea eta Kanpazarretik igaroko da.

Izena emateko hainbat aukera daude. Aurretik apuntatze-

ko, [erdellamt@erdellamt.com](mailto:erdellamt@erdellamt.com) helbidera idatzi ahal da, edota 94 658 21 79 telefonora deitu. Egunean bertan, ibilbide luzerako 06:30ean zabalduko dute inskripzioa, eta txikirako 08:00etan. Bidean jatekoa eskainiko dute, eta amaieran dutxa ere bai.

Ahalik eta jende gehien animatzeko helburuz, Bira txikia ere eratu dute


Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

Bizkaiko Gurutze Gorria

## LEHEN LAGUNTZAKO ETA UR SOROSPENEN IKASTAROA

**Ziurtagiri ofizialak.**

Matrikulazio irekita:  
**Irailak 9tik 20ra.**

Inskripzioak:  
**Durungaldeko Behargintzan.**

---

Interesa baduzu deitu  
hurrengo telefonora: **946 232 522**  
-Durungaldeko Behargintza-  
**Laubideta,6 - Durango**



[www.mdurango.org](http://www.mdurango.org)

**> DURANGALDEA ASTEON****Azoka txikia egingo dute zapatuan Muruetatorren**

Durangoko Muruetatorre auzoan askotariko produktuen Azoka Txikia egingo dute bihar. Aurten hirugarren aldiz antolatuko du ekimena Muruetatorreko auzo elkarteak. Eguraldia lagun badute, goizeko 10:30etik aurrera 60 bat postu ipiniko dituzte Durangoko auzoan.

**Areto- eta sabel-dantzen gaineko ikastaroak Berrizen**

Berrizen hainbat arlori buruzko ikastaroak prestatu dituzte: areto-dantza, sabel-dantza, zaramika, antzerkia eta sare sozialen ingurukoa. Sare sozialei buruzko ikastaroa urriaren 1etik 11ra da; gainerakoak, urritik ekainera arte. Izen-ematea irailaren 27a baino lehen egin behar da kultur etxean.

**Begirale ikastaroa hasiko dute Ibaizabal ikastolan, urriaren 2an**

Ikastolen Elkartearen Astialdiko Eskolak begirale ikastaroa antolatuko du Durangoko Ibaizabal ikastolan, urriaren 2tik aurrera. Titulu ofiziala lortu ahalko da, Eusko Jaurlaritzak homologatutakoa. Eskolak eguaztentean izango dira, 15:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako posta elektronikoa dute: [aisiola@ikastola.net](mailto:aisiola@ikastola.net).

**Pochutako herritarren alde sinatzeko azken aukera Abadiñoako kultur etxean**

Uda hasieran Bateginez GKEk sinadura bilketa bat jarri zuen martxan, Guatemalako 'Pochutako jendea babestu' lelopean. Barikuan egongo da sinatzeko azken aukera. Abadiñoako kultur etxean ipiniko dute mahaia, 18:00etatik 20:00etara. Bateginezek elkartasun proiektuak dauzka Pochutan: "Azken urteetan ezin izan dituzte zerbitzu publikoak erabili, ezta giza eskubideen bermea aldarrikatu ere".

**> BERRIZ****Kalean topatutako txakurrak adoptatzeko kanpaina hasi dute**

Momentu honetan Berrizko Udalak hiru txakur dauzka txakurtegia bere kargu

**> AMAIA UGALDE**

*Behar zaitut* lelopean, kalean topatutako txakurrak adopzioan hartzeko kanpaina hasi du Berrizko Udalak. Hiru txakur daude momentu honetan udalaren kargu: Bi duela bost hilabete batu zituzten kaletik, eta bestea udan batutakoa da. Udalak ordainduko ditu adopzio gastuak.

Udaletzeko langileek kaletik batutako txakur horiek Iurretan daude, Zaunk zentroan. Bertako egonaldiagatik udalak zortzi euro ordaintzen ditu egu-

nean. Aurten sei txakur batu dituzte, udan lau, baina bakarra dago orain txakurtegia. Beste hiruretako bat jabeak jaso zuen, bigarrena adoptatu egin dute, eta hirugarrena txakurtegia txarto heldu zen, eta hil egin da.

Txakurren jabeengan kontzientzia zioa landu gura du udalak: "Txakurrak lotuta edo kontrolpean eroan behar dira lituzkete, eta kakak batu", azaldu du Orland Isoird alkateak. Txakurrak solte uzteak, galtzeaz gainera, hainbat arrisku dakar-

tzala nabarmendu du alkateak: "Kotxe istripuak egon daitezke, edo baten bati haginka egin ahal diote". Txakurrak libre ibiltzeko espazioak ipintzea aztertzen dabilta udal arduradunak.

**700 txakur errolatuta**

Berrizen 700 bat txakur daude errolatuta; "gehiago ere egongo dira ziurrenik". Isoirdek errolatu bakoak errolatzea eskatu du. Irailean, hain justu, txakur arriskutsuak errolatzeko kanpaina egiten du udalak urtero.



Adopzio gastuak udalak ordainduko dituela azaldu du Isoirdek.

**Gizarte larrialdietarako diru atala handitu behar izan dute**

Laguntzetarako 54.000 euroak banatu dituzte, eta 20 kasu baino gehiago geratu dira diru-laguntza barik

**> AMAIA UGALDE**

Gizarte larrialdietarako laguntzen eskariak igo egin dira gizarte zerbitzuetan, eta, hori dela eta, laguntzetarako aurreikusitako dirua gastatu da. Aurtengo aurrekontuan 54.000 euroko diru atala egon da laguntza horietan banatzeko, eta eskari guztiei aurre egiteko 32.000 euro gehiago jarriko ditu Berrizko Udalak.

Orland Isoird alkateak azaldu duenez, diru-laguntzetarako diru atala amaitu denean, hoguei kasu baino gehiago geratu dira

diru-laguntza jaso ezinik. Guztira, aurten 50 eskari egon dira gizarte larrialdietako laguntzetarako.

Iaz, udalak gizarte larrialdietarako 44.000 euro banatu zituen, eta 2013rako 54.000 euroko diru atala aurreikusi zuen. Diru horretatik 33.000 Eusko Jaurlaritzak jarritakoak izan dira.

Horrez gain, kasu larrientezako ezohiko diru-laguntza propioak ditu Berrizko Udalak. 10.000 euroko diru atala izaten da, eta aurten 5.000 banatu dira.

**> ZALDIBAR****Auzolanean jardungo dute dorretxe ingurua atontzen**

Bihar, 09:00etan ipini dute auzolanean lagundu gura dutenentzako hitzordua

**> ITSASO ESTEBAN**

Olazar futbol zelaiaren ingurua atontzeko lanak egiteko kolaborazioa eskatu die udalak zaldibartarrei. Bihar, 09:00etan ipini dute hitzordua, eta lanerako materiala eramateko eskatu diote laguntzera joango den jendeari. Sasitza garbitzeko makinak eta inautesteko artaziak eramateko deialdia ere egin du udalak. Makinentzako gasolina eta hamarretakoa udalak eramango du.

Europako Ondarearen Jardunaldietan azaldu eta erakutsiko dute dorretxe horren garrantzia

Zaldibarko Udalak eta Osakidetza adosturiko hitzarmenak jasotzen duenez, azken horren jabetzakoa den dorretxearen inguruko eremua erabilera

publikokoa izango da, osasun zerbitzuak baliatzen ez duen artean. Horrela, azken urteetan dorretxearen inguruan hazi den sasitza garbitzeko helburuz jardungo dute auzolanean.

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen Ondarearen Europako Jardunaldietan dorretxe horren garrantzia gizarteratzeko helburuz, hainbat ekimen antolatu dituzte Gerediaga Elkartearekin batera, urrirako.

**A. Urreta podólogo**

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ SERGIANET BARRIAS

Herriko gudarrien kalea, 10 behea  
48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 - Faxe: 94 681 65 77  
posta elektronikoa: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

# ► Berbaz

**Ziortza Elorriaga** | Industria ingeniaria, Aliatec enpresako langilea | 37 urte, Mungia

## “Karbono aztarna neurtuta, emisioak murrizteko non eragin ikus dezakegu”

Aste Berdea dela eta, Elorriora etorri da Ziortza Elorriaga karbono aztarnaren inguruko berbaldia ematera. Klima aldaketan eragiten duten emisioak neurtzeko teknikei esker, gas kutsatzaileak murrizteko ekimenak egin daitezkeela nabarmendu du.



### > AMAIA UGALDE

**Zer da zehazki karbono aztarna?**

Guk klima aldaketan zenbat eragiten dugun neurtzeko modu bat da. Gramotan, kilogramotan edo tonatan atmosferara zenbat CO2 igortzen den neurtzen da. Berotegi efektua beste gas batzuek ere eragiten dute, baina CO2a kantitatez gehien dagoen gasa da. Karbono aztarna edozein jardueratan eta edozein produkturen bizitza zikloan aztertuta daiteke: lehengaiak atera direnean, ekoizterakoan, produktuaren erabileran...

**Galdetegi batzuk badaude, neurketa egiteko metodoak...**

Bai, neurtu gura denaren arabera. Udaletxe baten aztarna neurtu daiteke, edo produktu batena. Arau batzuk daude kalkulua egiteko: Inbentario bat egiten da egoten diren kontsumoekin, eta horri emisio faktore bat biderkatzen zaio.

**Hemen, inguruko enpresetan eta bestelakoetan, zabaldua dago kalkulu hori egitea?**

Bai, badago sentsibilitatea enpresa eta administrazioen aldetik. Baina azkenean, beti punta-puntan ibili diren enpresek egiten dute normalean. Beste

batzuk, gaur egun, beste arazo askogaz dabilta, eta ez daude horretara. Enpresa batzuek fabrikatzen duten produktuen karbono aztarna neurtzen dute, bezeroei informatzeko, eta neurtu eta gero, gutxitzeko. Diagnostikoa egin eta gero, emisio gehien non dagoen jakin, eta murrizteko ekintzak egitea da kontua. Konpromiso hori hartzen dute. Ekintzen bideragarritasuna ikusi, eta ahal bada, murriztu egiten da.

**Asko kutsatzen duten enpresek derrigorrez neurtu behar dituzte emisioak.**

Europako arau batzuek horrela aginduta, sektore batzuek, eta euren barruan enpresa batzuek, muga bat daukate. Emisio eskubideen mugak pasatuz gero, isun bat ordaindu behar dute. Gero, mekanismoak daude, eta emisio eskubideak erosi edo saldu ditzakete enpresek. Horrela funtzionatzen du CO2aren merkatuak. Diru hori penalizazio moduan ikusten da.

**Pertsona bakoitzak egunerokotasunean ere badauka bere karbono aztarna.**

Guk etxean ura kontsumitzen dugunean, berogailua jartzerakoan, kotxea hartzerakoan...

“

*Frantzian atera duten lege baten arabera, bertan saltzen diren produktuek euren karbono aztarna eduki behar dute etiketan”*

“

*Eraginkortasun energetikoagaz gutxiago kontsumitzen da, eta ingurumenak eskertu egingo du”*

hainbat jardueragaz emititzen dugu karbono dioxidoa. Batzuetan zuzenean, eta beste batzuetan zeharka. Kotxea hartzen dugunean, esaterako, zuzenean emititzen dugu. Ura edo argia kontsumitzerakoan, berriz, momentu horretan ez gaude CO2 emititzen, baina, adibidez,

energia kontsumitzen badut, eta energia hori ziklo konbinatuko zentral batean sortu bada, era ez zuzen batean karbono dioxidoa emititzea eragin dut.

**Elikagaien karbono aztarnari buruz ere berba egiten da, ezta?**

Bai. Ardoaren alorrean, eta beste elikagai batzuetan ere neurtu dute. Kontsumitzaile arduratsuek izateko bidea izan daiteke etiketan osagaiak irakurtzen ditugun moduan, produktuaren ekoizpenean zenbat CO2 emititu den jakin ahal izatea. Hemen, oraindik ez da asko egiten. Ardoaren kasuan, adibidez, kalkuluak ardoaren bizitza ziklo osoa hartuko dute kontuan: lurra lantzeko erabili diren traktoreen gasolioa, produkzioan egon den argiaren kontsumoa, supermerkatu joateko kamioiak... Ez dago oso zabaldua, baina Frantzian lege bat atera dute, eta bertan saltzen diren produktuek euren karbono aztarna eduki behar dute etiketan idatzita.

**Karbono aztarnaren kalkuluak aterata, zer ondorio ateratzen dira? Zer murrizteak dauka lehentasuna?**



Neurketagaz ikusten da zer jardueragaz emititzen den CO2

gehien, eta ea murriztu daitekeen, beti ez da posible eta. Gure egunerokotasunean, CO2a murrizteko, garraioan asko eragin daiteke, kotxea gutxiago erabilia. Energia kontsumoan ere murriztu daitezke emisioak. Gure etxetresna elektrikoetan energia aldetik eraginkorrenak direnak aukeratu ditzakegu. Orain, gainera, lege bat onartu dute, eta datorren urtetik aurrera, etxe berrietan nahiz bigarren eskukoak saldu eta alokatzeko, egiaztatu egin behar da eraginkortasun energetikoa. Geroago eta eraginkorrago izan, gastua txikiagoa izango da. Berogailua ere ahalik eta modu arduratsunean erabili beharko genuke: neguan berogailua 20 graduan edo 24 graduan ipini, ez da gauza bera.

**Kontsumo ohiturak aldatzea da kontua, azkenean?**

Eraginkorra izatea da kontua. Behar ez den gastu hori saihestea. Badaude beharrezkoak ez diren gastuak. Bonbillen kasuan, kontsumo baxukoak hasieran garestiagoak direla iruditu arren, agian horiek urte gehiago iraun, eta gutxiago kontsumitzen dute. Beraz, merkeagoak izateaz gainera, ingurumenak eskertu egingo du.





# GREMIOEN GIDA

 **DEKORAZIOA**

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guzietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialen, 45 Garaia A - Berriz.  
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21  
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com

 **ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA**

ARGIZTATZE TEKNIKAK  
**MARKIEGI**

Plateruen plaza 4, behea  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com

 **ITURGINTZA**

Solaguren kalea 3 - ASADIÑO  
Tel.: 94 601 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
urtinga.sld@terra.es

**urtinga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

 **GARBIKETA**

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta alfonbrak

Gojeta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

 **LOREZAINNTZA**

*Jardines Patxi Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutx, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**K21**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak zure zerbitzura!**

## Denbora aurrera doa, baina zigorgabetasunak gure artean jarraitzen du.

Egia, justizia eta 1936tik 1975era, 36ko gerran eta frankismoan nazioarteko zuzenbidearen aurka egindako krimenen biktimek erreparazioa ukatu egiten dira oraindik ere Espainian.

Denbora aurrera doa, baina zigorgabetasunak gure artean jarraitzen du. Horrela du izena, eta horrela hasten da Amnistia Internazionalaren 2013ko ekaineko txostena. Esaldia txostenaren azalean dago, Oviedon dagoen hilerriko hobi komuneko hildakoen zerrendari begira ari diren aguretxo biren argazkiaren gainean.

Esaldi horrek gure garaipena erakusten du, gure aldarrikapenetan ez gaudela bakarrik. Hildakoen eta errepresaliatuen alde daroagun borrokan baditugu lagunak nazioartean, Amnistia Internazionala, esaterako.

Orain arte lan handia eginda, ekinaren ekinez lortu dugu biktima askoren izenak jakitea, eta batzuen hezur hondarrak ere berreskuratu ditugu. Omenaldiak ere egin dizkiegu, herriak aukeratutako Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Errepublikako gobernuaren aurka altxatu ziren faxistak salatuta. Frankoren diktadura bera ere salatu dugu, eta oligarkiak eta Eliza katolikoaren buruen jokoerak ere salatu ditugu, altxamendu faxista eta diktadura babestu zutelako. Berriz ere, salaketa horiek egiten ahalegindu gara azkeneko urteetan, behintzat. Baina, hala eta guztiz ere, zigorgabetasunak gure artean jarraitzen du.

Orain, sasoi berria zabaldu behar dugu, eta zigorgabetasunaren aurka jardun behar dugu, bide berriak bilatuta.

Krimen horiek guztiak ahaztuta eta zigortu barik ez daitezela gelditu, Amnistia Internazionalaren arabera, "justizia unibertsalak aldarrikatzen duen legez, beste herrialdeetatik eginiko ikerketek aukera ederra eskaintzen digute zigorgabetasunaren kontra ekiteko".

Berrizko herriak ere horrela ulertu du, eta gaur, hemen berretsi dugu Espainiako estatuaren ahanztura bidegabearen kontrako salaketa. Ez dute erraz lortuko guk ahaztea, ezta guk euren zigorgabetasuna onartzea ere.

Estatu espainiarrak oztopo ugari jarri dituzenez, Berrizko udalbatzarrak eta Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak bat egin dute Estatu espainiarretik kanpo zabaldu den bide berri batekin: Querella argentina contra los crímenes del franquismo. Buenos Airesko Epaitegi Nazionalako Krimen Sailean, 2010eko apirilean, Maria Servini epailearen aurrean aurkeztu

zen izen honekin: Genocidio y crímenes de lesa humanidad cometidos en España por el Franquismo y sus autores entre el 17 de julio de 1936 y el 15 de julio de 1977.

Beharbada, baten batek bere buruari galdetuko dio ea zer lortuko dugun horrekin guztiarekin. Horretan indarrak jarzea merezi ote du? Guk badakigu egia, badakigu zer gertatu zen, ezin gaituzte engainatu. Badakigu epaiketa militarrek garantzia bako eta arrazoi bako epaiketak izan zirela, badakigu zenbat herritar hil zituzten bide bazterretan. Eta horiez gain, hainbaten, pentsatuko dugu justiziarik ezin dela egin errudunak dagoeneko hilda daudelako. Kalte-ordaina, ekonomikoa behintzat, ezinezkoa izango dela Argentinako justiziatik etortzea, hain urrun dagoen herrialde batetik.

Baina ez da horrela, ezta pentsatu ere. Bide horrek merezi du, bai. Hain zuzen ere, hainbestetan errepikatzen eta exijitzen dugun egia, justizia eta erreparazioa leloa bide horretatik jarraituta lortu daiteke: esan dadila esan beharrekoa eta esan behar den tokian, zigor epaimahai batek esan dezala behingoz. Horrela gertatuz gero, historiaren aurrean, faxistek eragindako hilketak, fusilaketak, desagertzeak, bahiketak eta torturak krimen latz eta justifikatu ezintzat hartuko dira.

Onarpen hori guztiz beharrezkoa dugu bene-benetako oinarri etiko eta legezkoak jartzeko gaurko gizartean, halakorik berriro ez dadin gertatu, eta herritarrei zor zaien errespetua segurtatu dadin behin betiko.

Espainiako estatuak trabak jartzen dizkio prozesu horri, egia ikertzeari, alegia. Haatik, badakigu beharrezkoa dela ikertzen jarraitzea. Espainiar estatuko Epaimahai Gorenak faxistek gerran eta diktaduran eragindako krimenak ikertzea debekatzea demokraziaren eta nazioarteko eskubideen aurka doa. Guk horrela esaten dugu; baita Amnistia Internazionalak eta nazioarteko zenbait erakundek ere.

Horregatik, errepresaliatuen senitartekoei eta Berrizko herritarrok borroka horretan jo eta ke jarraituko dugu, lortu arte. Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak prest dago errepresaliatutako senitartekoei laguntzeko euren senideei egindakoak salaketak jartzen.

Amaitzeko, irailaren 11 heltzen den bakoitzean esaten dugun legez, zera esan nahi dugu ozen, gaur ere: Agustín Millikua, Felipe Urriaga, Fermin Aranguren, Gregorio Urkijo, Jose Aguirre eta errepresaliatutako herritar guztiez harro gaudela. Harro gaude euren ideiez, oraindino, gaur egun ere, aldarrikatzen jarraitzen ditugunak, betikoek herriaren borondatea ukatzen jarraitzen dutelako.

Berriz 1936 Gogoratzen, 2013-09-11

## Kexa

Pasa den irailaren 10ean Forum Sportera joan nintzen. Sartzerakoan ez zen ezer gertatu, baina bai irteterakoan. Alarmak jo zuen, eta segidan galdetu zidaten zer edo zer hartu nuen. Erantzuna ezezkoa izan zen. Poltsikoa husten hasi nintzen, eta ez zuen jotzen. Azkenean, Galdakaoko denda batean erositako telefono funda bat izan zen alarmak joatzearen arrazoa. Jende guztiaren aurrean jasotako tratua oso txarra eta lotsagarria izan zen. Hurrengo egunean, arduradun baten bila joan

nintzen. Naiaragaz berba egiten egon nintzen; oso baxu egin zidan berba, eta jendearengandik aparte eraman ninduen. Ez zidan erreklamazio orriarik eman nahi izan, Ertzaintzari deituko niola esan arte. Berak lekuko bi eraman zituen, eta nik esan nion nire lekukorik ez zenez egongo Ertzaintzari deituko niola. Erreklamazio orrian beraien alde jokatu dute, bertsio desberdina emanda.

Juan Antonio Duñabeitia, Durango

## SEI HANKAKO MAHAIA

### URDASPAL BOLINAGA

Bildu



### Parte hartze ereduak

Kasualitatea izango da, baina, Durangoko Udalean udan agertzen dira gai korapilatsu gehienak. Iazko kurtso hasieran 300.000 euroko futbol zelai berri batekin harrapatu gintuzten ezustean. Era berean, aurten, trenaren lurperatzearekin libre geldituko diren lurretan zer egin proposatzea egokitu zaigu abuztua bukatzerako. Izan ere, lur horietan espekulatu dabilen ETS enpresa publikoak urbanizazio lanak aurrera eramango dituela jakinarazi digu. Gauzak horrela, Hirigintza batzordean erabakiko da Durangoren izaera definituko duen lur eremuan zer egingo den. Baina hau ez da berria. Badira zortzi bat urte Durangoko Udalak lur horietan zer egin erabaki zuela: luxuzko bost dorre, Zaha Hadid arkitekto ospetsuak diseinatutako tren geltokia bulegotarako eraikin batekin, eta nola ez, herri honek gaur guztiz beharrezkoa duen, eta Bilboko Apezpikugoak eraikiko duen eliza berri bat. Gezurra badirudi ere, ez nabil txantxetan!

Hartutako erabakiekin agerian utzi dute durangarron beharriaz buruz ezer gutxi dakitela. Boterea nork bere kapritxoak betereazteko erabiltzen den kasuetako adibide garbia duzue hori. Kontrara, herriak emandako boterea, herritarrei bueltatzea eta horrelako proiektuen egikaritzetan parte hartzeko aukera emateari beharrezkoa dela deritzot. Herritar guztion erantzukizuna delako Durangoren etorkizunaz debatitu eta "Operación Durango" delakoan apartatzea. Durangarrak gara, eta Durango maite dugu. Nola ez dugu bere bihotza diseinatzen lagundu nahiko? Baina esan bezala, hori alderdi politikoen bulegotan diseinatu zen bere garaian. Ondorioz, gaur egun udalean parte hartze eredu bi aurki ditzakegu. Lehenengoa, 4 urterik behin buruturiko bozkek ematen dieten ustezko zilegitasunaz baliatzen direnena da, udaletxeko bulego ilunetan Durangori komeni zaiona erabakitzen dutenena. Bigarrena, Durangoren beharriaz herriarekin aztertu eta denon artean diseinatutako etorkizuna nahi dutenena.

Guk argi daukagu bigarren horren alde egingo dugula lan. Durangar sentitzezko parte eman, parte hartu eta parte izatea nahitaezkoa dugulako

Beraz, nolako etorkizuna nahi duzu Ezkurdi eta Durangorentzat?

### Laguntzaileak:



**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2013ko irailaren 20a  
11. urtea - 514. alea

### Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi.  
**Zuzentzaileak:**  
Jon Ander Urkiaga.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

**Dani Mateo** | Granollers (Katalunia), 1979. | Komikoa

## «Sarreraren truke, ordu eta erdiko barrea eta bizitza eternala eskainiko dizuegu»

‘PK2.0’ ikuskizuna aurkeztuko du Dani Mateo umoristak, bihar, Durangoko Plateruenean: “Salbazioa eskaintzera” datorrela dio

### > ITSASO ESTEBAN

Irratitik telebistarako bidean harrapatu zaitugu. Asteburuan Durangon izango zaitugu bakarrizketa eskaintzen... Oso aste lanpetua daramazu.

Bai, oso, baina ez beste edozein astetan baino gehiago, ez pentsa. Horrelakoxea da nire bizitza!

**Zenbat denbora daramazu hiru lanbide horiek uztartzen?**

Zenbat denbora daramadan bizitarik barrik, nire gaztaroa alferrik galtzen galdetu gura duzu, ezta? (Barrez). Denbora da horrela bizi naizela: hamar bat urte. Sekula ez nuen pentsatuko honetaz biziko nintzenik, eta dena da ezustekoa Madrilera iritsi nintzenetik. Komiko legez lan egin ahal izateari, eta telebista eta irratiko eskaintzei ezin nien ezetz esan!

**Zelakoa izan da prozesua? Nondik norako ibilbidea izan da?**

Kazetaritza ikasi nuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Nire fakultatearen lotsarako! Ni Buenafuente zalea nintzen. Kazetaritza egin nahi nuen, baina ez nuen Iñaki Gabilondo izan nahi, *late night* programa bat egitea zen nahi nuena. Entrenimendu programean lan egin nahi izan dut beti.

**Horrela hasi zinen telebistan?**

Ez, hasieran ez nuen horretarako aukerarik izan. Trafikoaren eta eguraldiaren berri ematen nuen! Oso lan duina da, baina ez nik amestu nuena. Krisi sasoi bat bizi izan nuen, “ez da hau nik nire bizitzarekin egin nahi dudana!” pentsatzen nuen. Momentu horretan, bat-batean, bakarrizketak iritsi ziren: lagun batek deitu ninduen esanez, “zatoz, tontoarena egitearren ordaintzen dizute hemen!”.

Garai hartan Espainian bakarrizketak ez zeuden orain bezain zabaldua. Bakarrizketa bat eskaintzen nengoela, nik amestu bezalako gaueko programa bat egiteko eskaintza egin zidaten: *Noche sin tregua*.

**Durangora dakarzun ikuskizunak zelako harrera eduki du orain arte?**

Bi denboraldi daramatzat ikuskizunagaz, eta oso harrিতa gaude, lehenengo amaitzea ere ez baikenuen espero! Jendea antzokira joan da, eta oraindik ere, jendeak ordaindu egiten du egunero etxean telebistaz dohainik ikus dezaken tipo bati entzutearren. Oso pozik gaude.

“

*Oraindik ere, jendeak ordaindu egiten du egunero etxean dohainik ikus dezakeen ni lako tipo bati zuzenean entzuteko”*

**Zer gai lantzen dituzue emanaldian?**

Eskaintzen duguna ez da bakarrizketa bat bakarrik. Betiko bizitza ere oparitzen dihardugu emanaldietan. Oso eskaintza berezia da: sarreraren truke, ordu eta erdiko barrea eta bizitza eternala oparitutako dizuegu. Aita santuak dimititu zuenean, botere hutsune hori aprobetxatu nuen esateko: “Neuk joan beharko dut herriz herri salbazioa eskaintzera!”. Argi dago mundua laster amaituko dela. Honezkerok, nire asmoa ez da mundua salbatzea, haratago noa: “Konforme: zer



egingo dugu behin mundua amaituta?”. Izan ere, hainbat teoriak esaten du, bizitza honen ostean beste bat dagoela hau baino askoz gustagarriagoa dena!

**Jendea zurekin daramazu, beraz, beste dimentsio horretara?**

Jendea aukerak zeintzuk diren kontatzen diot, izan ere, aukerak begiratzen aritu naiz. Formulario bat betetzea eskatzen diogu jendea. Zazpi bekatu nagusiengatik barkamena eskatu behar duzu sartzeko, eta antzokitik begiak dizidiz dituzula ateratzen zara. Sarrera baten prezioan, oso eskaintza interesgarria dela uste dut!

**Zelakoa izaten da zure ikuskizunen sor-kuntza prozesua? Dibertigarria?**

Onartu behar dut ezetz. Beti izan naiz oso diziplina gutxikoa, eta beste formula batzuk baliatu ditudan arren, sortzeko ez dago besterik, eseri, idatzi eta lan egitea baizik: neure burua aulkira lotu behar

izaten dut idazteko! Idazkuntza prozesu hori gogorra, mingarria eta luzea egiten zait. Baina, gero, jendea barrezka ikusten duzunean ahazten duzu hori.

**Ikusten duenarentzat bezala, zuretzat ere oso bestelakoa izango da antzoki batean bertatik bertara jardutea, ezta?**

Hain justu horregatik jarraitzen du jendea oraindik antzerkera joaten. Telebista, irrati programa bat zein filmak, zuzenean edo Interneten ikusi ditzakezu. Antzerkiaren esperientzia bakarra da: gidoitik atera, eta momentukoa bizi-bizi ikustea.

**Umore absurdora jotzen duzu gehien? Zeintzuk dira zure erreferenteak?**

Ironiaren eta absurdoaren artean dihardut. Maila altuko umorea egiten duten George Carlin eta Bill Gigs asko gustatzen zaizkit, baina barrez lehertzen naiz Chiquito de la Calzada edo Cañita Brava-ren estilokoekin ere.

## “Distantziatik, oso komikoa da bizitza”

Bakarrizketak eskaintzeaz gainera, irrati programan bat gidatzen du Dani Mateo kataluniarra, eta La Sexta telebistako *El Intermedio* programan ere lan egiten du egunero: gaurkotasanari begirada zorrotza ematen dio-

te, eta gero eta ikusle gehiago batzen dituzte. Dani Mateoren berbetan, “egiaren, graziaz zipitzik ez duten gauzez gabilta egunero barre egiten, baina kontuan hartzekoa da agintean dauden lotsabako horiei min gehien horrek

egiten diela: eraso zuzenak baino, min handiago egiten die jendearen barreak”.

“Agintariekin euren jokabideak justifikatzen egiten duten erri-dikulu itzelaz egiten dugu barre: egoeraren larritasunari garrantziarik kendu barrik, baina, distantziatik begiratuta, oso komikoa da bizitza. Eta baselina bikaina umorea!”.

**> ITSASO ESTEBAN**

Iraia Okina durangarrak Joxantoni Ormazabalen *Ilargia esnatu da* libururako egindako ilustrazioak saritu dituzte Ilustratzaileen Bratislavako (Eslovakia) Bienalean. Haur literaturako ilustratzaileen nazioarteko topaketa da Eslovakiako hiriburukoa, eta Urrezko saria eman diote bertan Durangaldeko sorzaile gazteari.

Irail-urrian egiten dute Ilustratzaileen Bratislavako Bienala. Estatu bakoitzak hamabost ilustratzaile hautatzen ditu argitaratu emandako euren lanak bertan erakusteko. Hautatu horietako bat izatea bera saria dela dio Okinak: "Entzute handikoa da hautatua izatea bera, eta horren harira, argialetxeak kasu apur bat gehiago egiten hasten zaizkizu, zure lana kontuan hartzen". Maila handikoa da jaialdia: aurreko edizioan, esaterako, Estatuko berrogeita hamar ilustratzailek hartu zuten bertan parte.

1967tik Eslovakiako hiriburuan antolatzen duten ekimenaren barruko erakusketan ikusgai izango dira Iraia Okinak *Ilargia esnatu da* poesia libururako egindako ilustrazioak. Urriaren 25era arte izango da erakusketa hori zabalik, eta Okinarenagaz batera, Iban Barrenetxea, Elena Odriozola eta

**> SARIKETA**

## Iraia Okinaren ilustrazio lana saritu dute Bratislavako Bienalean

Okinak 'Ilargia esnatu da' libururako egindako lana goraipatu dute sariketan

Maite Gurrutzaga ilustratzaile euskaldunen lana ere ezagutu ahalgo dute bisitariek.

Iraia Okina: "Buelta asko eman nien Joxanen berbei, asko pentsatu dut bere ipuineko testuen esanahian"

Elkar argialetxearen eskutik, 2012an argitaratu zuten Joxantoni Ormazabalen eta Iraia Okinaren elkarlanetik sorturiko *Ilargia esnatu da*: bizitzaren eta heriotzaren misterioari buruzko berba eta ilustrazio bilduma poetikoa da. Okina eta Ormazabalen elkarlanetik sorturiko lanak lehen ere saria jasotakoak dira: Etxepare saria jaso zuten, esaterako, *Zirkua amets* liburuagaz, 2008an.

"Duela lau urte hasi nintzen Joxanekin ipuinen ilustrazioa egiten, baina urtebetera hil egin



Elkar argialetxearen eskutik, 2012an argitaratu zuten Joxantoni Ormazabalen eta Iraia Okinaren liburuak

zen bera", gogoratu du Okinak. Heriotzari buruzko umeentzako ipuina izan behar zuenak, bestelako zentzua hartu zuen egilearen heriotzaren ondoren, eta Ormazabal omendu dute ipuinaren edizioagaz.

*Ilargia esnatu da* liburuko marrazkien sorkuntza prozesua zaila egin zitzaion Iraiari: "Buelta asko eman nien Joxanen berbei, asko pentsatu dut bere esanahian".

Bi aldiz, 2009an eta 2010ean, Euskadi sariaren ilustrazio saileko finalista izana da Iraia Okina, eta nazioartean lehenago ere goraipatu izan dute bere lana: 2010ean Japoniako Ilustratzaileen elkartearen aipamen berezia jaso zuen.

Mabel Andreu idazlearen umeentzako ipuin baten ilustrazioan dihardu Iraia Okinak orain lanean. "Estiloa pixka bat aldatu dut: nik uste irudiak umeentzako interesgarriak izango direla". Irudi "aske eta koloretsuagoak" egiten dabil azkenaldian Okina.

**GEURE DURANGALDEA**

**MIREN AMURIZA**  
Bertsolaria



### Esaten ez dena

Irailaren 29an abiatuko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Dagoeneko irakurriko zenuten non edo han txapelketari buruzko informazioa: bertsolariak, kanporaketak jokatu diren herriak, sarrerak nola eskeratu... Baina aditu bati entzun genionez, bertsolaritzan esaten dena bezain garrantzitsua da esaten ez dena, elipsiarekin bertsolariak iradokitzen duena. Bada, txapelketarekin antzeko zerbaitek gertatzen da, bai baitira prentsaurrekoan aitatu ez arren, lehiaketa hori bene-benetan berezi egiten duten alderdiak.

Parte-hartzaileok hasita gaude han-hemenka lokal txiki edo txokoetan elkartzen, entrenamenduaren aitzakian lagunarte ederrean egoteko asteroko zita noiz iritsiko. Plazetan ere, publikoaren gozagarri, igartzen da nor ari den etxerako lanak fin-fin egiten; haren errima berezi, honen doinu luze... Bertso eskoletako umeek jakin-minez astintzen dute txapelketako eskuorria: "Hau nor da?" edo "hori non goa da?". Bertsozaleak oster, egutegian saioak markatu, eta ariko dira honezkero Euskal Herria alderik alde zeharkatzeko antolatzen: Altsasu, Oion, Markina, Donostia, Maule... Eta etxean, esaten ez diguten arren, urduritzen hasita egongo dira hainbaten bertsolarion guraso, bikote eta lagunak: "Aurten zer egingo ote digu?".

Ez dakigu. Ez dakigu aurten txapelketan zer izango den, eta horrexegatik gonbidatzen zaitugu hitzez adierazi daitekeen guztiaz, eta bereziki adierazi ezin daitekeenaz, gurekin gozatzeraz.



'Ilargia esnatu da' libururako Okinak egindako marrazkietako bat.

**La Papa Teatro**  
**AMAMA ANAREN BIDAIA**

Irailak 21 • 18:00etan (gaztelaniaz)  
Irailak 22 • 18:00etan (euskaraz)

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**Arrike**  
liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 94 620 18 93  
Faxa: 94 681 64 03

Hemen agertu gura badozu  
**deitu!**

94 621 79 02

# JAIAK!

2013ko IRAILA | Iurreta



SAN  
MIGEL  
JAIAK  
2013

*Iurretako udalak  
jai zoriontsuak  
opa deutsueez!*



IURRETA  
ELEIZATEKO  
UDALA



# IURRETAKO JAIEN EGITARAUA

## Irailaren 20a, barikua

**18:00** Pirritx eta Porrotx 'Sentiitu, pentsatu, ekin' ikuskizunarekin.

## Irailaren 21a, zapatua

**07:00** Mendi martxa (Zaldai). Olaburu frontoitik irtengo dute. Ibilbidea: lurreta-Atxarte-Arazola-Zabalandi-Urkiolamendi (1.009 m)-Urkiola-Saibigain (942 m)-Leungane (1.006 m)-lurreta (42 km,+ 2.700 m). Ibilbide laburra ere prestatu dute. Irteera 09:00etan, Olaburu frontoitik: lurreta-Mendiola-Mañaria-Leungane (1.006 m)-lurreta (25 km, + 1.000 m).

## Irailaren 27a, barikua

**17:30** Umeentzako herri-kirolak, Amilburu plazan.

**19:00** 'Pottola' antzezlan (Txalo Produkzioak), Ibarretxe kultur etxean. Sarrerak: aurretiaz, 4 euro/ egunean, 5 euro.

**21:30** Asto-probak. Gonbitez.

**22:00** 'Alma Navarra' eta 'Alma Latina' ikuskizunak, Askondon.

**22:30** Rock kontzertua: Krome+Itziarren Semeak+Arkada Social+Tributo a Extremo Duro.

## Irailaren 28a, zapatua (San Migel bezpera)

**12:00** Montoitik txapligoak; ondoren, kalejira dultzaineroek alaituta.

**12:15** 'Begira jokoak' umeentzako ikuskizuna, Amilburu plazan.

**14:00** Herriko nagusien bazkaria. Ondoren, erromeria.

**14:30** Gazte bazkaria, Aita San Migel plazan.

**17:30** IKT-Santurtzi futbol partidua, Larrakozelai futbol zelaian.

**18:00** Ohiturazko Donien-atxa jasotzea. Dantzarien azken entsegua.

**22:00** Erromeria: Luhartz taldea.

## Irailaren 29a, domeka (San Migel eguna)

**10:00** Dantzari eta agintarien kalejira, Montoitik Aita San Migel plazara.

**11:00** Meza nagusia. Ondoren, Dantzari-dantza eta Gorulari-dantza.

**12:30** Bertsolariak: Gorka Lazkano, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Erika Lagoma. Ondoren, Igel txapelketa.

**16:00** Mus txapelketako finala, Aita San Migel plazan.

**17:00** '...jolastera...' haur dantzaldia, Amilburu plazan.

**17:30** Asto-probak. Gonbitez.

**19:00** Dantzari-dantza, eta neskek egindako Soka-dantza.

## Irailaren 30a, astelehena

**12:00** Kantuz kantuko kalejira.

**17:30** Maiztegi eskolako umeen dantza erakustaldia.

**18:30** Ume eta gazteentzako disko festa: Xaibor Show, Amilburu plazan.

## Urriaren 2a, eguaztena

**19:30** 'Batzarra12etan' antzezlan, Ibarretxe kultur etxean.

## Urriaren 3a, eguna

**09:00** lurretako azoka.

**11:30** Ogi eta Eusko Label produktuen dastaketa.

## Urriaren 4a, barikua

**19:00** Dantzaldia eta luntxa Jubilatuen Etxean.

**21:00** Sabel-dantza agerraldia: 'Conexión Oriental: Un viaje a través de la danza.

**21:00-23:30** DJ-Referee, Askondon.

**21:30** Gala afaria (euria eginez gero, frontoian).

**22:30** Bakarrizketa.

**24:00** Erromeria: Drindrots taldea.

## Urriaren 5a, zapatua. Umeen Eguna. Domingero Eguna.

**12:00-14:00** Umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak (euria eginez gero, Maiztegiko frontoian).

**13:30** Tortilla txapelketa (partaide bakoitzak behar dituen osagaiak eta tresneria ekarri behar ditu).

**14:30** Tortillaren aurkezpena.

**16:00** Mahai-joko txapelketa (musa, briska...).

**16:00-19:00** Umeen parkea, puzgarriak eta tailerrak (euria eginez gero, Maiztegiko frontoian.)

**17:00** XIV. Bizikleta Festa. Irteera Aita San Migel plazan. Helmuga Olaburu frontoian.

**20:00** Gizon-probak, Olaburu frontoian.

**22:00** Bertsolariak: Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Igor Elorza. / Gai-jartzailea: Miren Amuriza.

**24:00** Erromeria: Laiotz taldea. Kodrila onenari saria emango zaio.

## Urriaren 6a, domeka

**10:00-14:00** XV. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, Andaparapen.

**10:30** Dantzari eta agintarien kalejira, Montoitik Plazara.

**11:00** Meza nagusia. Ondoren, Dantzari-dantza eta Gorulari-dantza.

**12:30** Herri-kirolak, Aita San Migel plazan.

**12:30** Marmitako txapelketa.

**14:30** Marmitakoaren aurkezpena.

**18:30** Dantza saioa. Talde gonbidatua: Jare Dantza Taldea (Gasteiz). lurretako dantzariak Gorulari-dantza eta Dantzari-dantza eskainiko dute. Ondoren, jaietako errifen zozketa.

**20:30** Herri afaria Arantza eta Pantxok alaituta.

**22:00** Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz. Erromeriak gauerdira arte jarraituko du.



# Jaien lehenengo pausoak, bihar, mendirik mendi

Zaldai Mendi Taldeak Iurretako IV. Mendi Martxa antolatu du biharko. Martxa laburra -25 kilometrokoa-, edo martxa luzea -45ekoa- egin daitezke

## > AMAIA UGALDE

Iaz 235 mendizalek parte hartu zuten Iurretako mendi mar txan, eta aurten ere, Iurretakoak zein Euskal Herriko txoko askotatik etorritakoak, ugari izango dira Zaldai Mendi Taldeak antolatutako mar txan.

Aurrekoetan moduan, mar txan bi egongo dira zapatuan, luzea eta laburra. Luzeko parte hartzaileek 07:00etan irteeratu dute frontoitik, eta aurreko urteetako baino ibilbide luze txoagoa izango dute aurretik, 45 kilometrokoa. Erlantz Zaldunbide Zaldai kideak kontatu duenez, ibilbide berezia izango da: "Durangaldeko mendi esan guratsuenak edo guk Iurretako

E. Zaldunbide: "Martxa luzean guk Iurretatik aurretik ikusten ditugun mendiak inguratzea gura izan dugu"

Martxa laburrean Mugarra inguratuko dute: "Kirol apur bat egiten duen edonorentzat izan daiteke egokia"


tik aurretik ikusten ditugunak inguratzea gura izan dugu". Iaz Atxartetik Pol-Polera joan ziren, eta aurten Artolara jo, Sagastara bajatu, eta handik Arrazolara abiatuko dira. Gero, Mariren koba azpiko bidetxo batetik Zabalaundirantz jarraituko dute.

Bide laburragoa egin gura dutenentzat 09:00etan izango da irteera ordua frontoian. Iazko ibilbide bera da: Mugarra inguratuko dute, Leunganeko ton-toretetik pasatuta, 25 kilometro eginez. Zaldunbideren berbetan, "kirol apur bat egiten duen edonorentzako egokia da".

Asteon ehun pertsona baino gehiagok eman du izena



Iazko mendi mar txako momentu bat. 235 pertsonak parte hartu zuten. Zaldai



Internet bidez, eta egunean frontoian bertan ere eman ahalko da izena, irteera ordua baino ordu bete lehenago.

## Hornidura gunek, dutxak...

Martxaren antolakuntzan hogeiki lagun baino gehiago ibiliko da boluntario lanetan. Bidean lau hornidura gune egongo dira, eta helmugan, opariak eta dutxatzeko aukera egongo da. Irten aurretik kafea eta pastak banatuko dituzte, eta bira amaizterakoan luncha edukiko dute parte hartzaileek.

Zaldai taldeak horrelako mendi mar txan antolatzen duen laugarren aldia da, eta hitzordua egonkortu egin de-

la azaldu du Zaldunbidek: "Euskal Herriko mar txan zirkuituaren barruan dago, eta egutegian egotean, jende asko etortzen da kanpotik".

## Hurrengo zita azaroan

Zapatuko mar txanaren ostean, Zaldai taldearen hurrengo irteera azaroaren erdi aldean izango da. Kultur etxeak antolatzen duen Munduko Paisaiak ekimenean, Iurretako auzoetatik igarotzen den mar txan antolatu du azken urteetan Zaldai mendi taldeak: "Herritarrei begirako irteera izaten da, adin guztiarako iurretarek parte hartzeko modukoa", adierazi du Erlantz Zaldunbidek.



# Ondo pasa San Migeletan!

"la Caixa"

Bixente Kapanaga, 5 • 48215 Iurreta • Tel: 946 220 010 • Faxe: 94 621 58 48

## Parques y Jardines



Abadiano, S.A.

• LOREZAINZA • KIROL ZELAIK • HIDROEREITEA • GOLF ZELAIK •

Gaztañatza auzunea - 48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 94 681 37 93 / 94 681 26 33 / 94 621 55 80  
Faxe: 94 681 90 82  
parques@parquesjardines.euskalnet.net

## Garage SAN MIGUEL



Garage San Miguel De Iurreta S.L.  
Dantzari Auzunea, 8 Behea - 48215 Iurreta  
Tel.: 946 811 479 - Faxe: 944 668 282  
Posta elektronikoa: garagesanmiguel@gmail.com

# Domíngero Eguna eta gala afaria San Migeletako nobedade nagusiak

Urriaren 4an, barikuan, dotore jantzita gala afarian bilduko dira iurretarrak. Zapatuan, berriz, Domíngero Egunean, bakoitzak bere erara prestatuko du bazkaria, eta originalenek saria izango dute

**> JONE GUENETXEA**

Ohitura zaharrak urteroko nobedadeekin uztartu ditu aurten ere San Migeletako jai batzordeak. Irailaren 27an, barikuan, rock kontzertuagaz -Krome, Tributo to Extremoduro, Itziarren Semeak eta Arkada Social-motorrak berotuko dituzten arren, jaien hasiera ofiziala irailaren 28an, zapatuan, izango da. Montoitik txapligoak jaurtiko dituzte eguerdian, eta, ondoren, dultzaineroek alaituko dute kalejira. Arratsaldean, ohiturazko Donien-atxa jasoko dute, eta haren inguruan dantzariak azken

entsegua egingo dute. Luhartz taldearen erromeriagaz goizeko ordu txikieta helduko dira iurretarrak.

Jai batzordeko kideek jaien aurkezpenean azaldu dutenez, nesken dantza taldeak orain arte arratsaldean egiten zuen dantzan, eta aurten, goizean eta kalejiran ere parte hartuko du. Gaineratu dutenez, "urte askoan buruan izan dugun asmoa izan da, eta aurten parte hartzea erabaki dugu". Jai batzordeak nesken taldeari beste emanaldietan ere dantzan egiteko deia egin dio.

San Migel eguna domeka denez, iurretarrak astelehenera pasatu dute jaieguna. Kanean giroa sortu guran, eguerdian, Iurretako koroa kantuz kantuko kalejiran irtengo da. Arratsaldean, berriz, Maiztegi eskolako umeek dantza erakustaldia eskainiko dute.

**Mozorro Eguna orain gala**

Azken urteotan Mozorro Eguna antolatu izan dute urriko lehenengo zapatuan, Iurretan. Aurten, egun hori barikura pasatzea erabaki dute, eta bazkaria beharrezko afaria prestatuko dute.

Ez da edozelango afaria izango, baina. Gala afari horretara dotore jantzita joan beharko dira, eta *photocall*-a eta beste hainbat sorpresa gehiago egongo dela aurreratu dute. Eguraldia lagun badute, plazan mahai biribilak jarrita batuko dira. Bestela, frontoian elkartuko dira. Bakarriketak eta erromeriak girotu-ko du afalostea.

**Domíngero Eguna**

Jaietako beste berrikuntzeta-ko bat Domíngero Eguna da. Umeen Egunagaz bat eginez, "domíngero" jantzita joateko

dei egin du jai batzordeak. Bazkaritarako janaria eraman, eta egun-pasa egitea da asmoa. Gainera, tortilla txapelketa ere antolatuko dute eguerdian. Umeen Eguna denez, umeen parkea eta puzgarria egongo dira egun osoan. Koadrila originalena-

Nesken dantza taldeak orain arte arratsaldean egiten zuen eta aurten goizean eta kalejiran ere parte hartuko du

ri saria emango diote. Eguna biribiltzeko, punta-puntako bertsolariak gonbidatu dituzte: Susatrai Colina, Unai Iturriaga, Amets Arzalluz, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Igor Elortza. Miren Amuriza izango dute gai-jartzaile.

**Mus txapelketa**

Iurretako tabernen artean mus txapelketa antolatzea erabaki dute. Kanporaketak tabernetan antolatu dituzte, eta finala elizpean izango da, San Migel egunez.

Irailaren 22an ospatzekoa zen XXVI. Ahari lurreta bizikleta ibilaldia bertan behera gelditu da



**iBAi-ONDO**  
KAFETEGIA

Goizeko 06:00etatik  
aurrera gosariak eta pintxoak

**ONDO PASATU JAIETAN!**

Bixente Kapanaga, 11 • 48215 IURRETA  
☎ 946 202 157

**Repara Tu Vehículo**  
Bestelako mekanika posible da

**PROMOZIOAK**

OLIOA+OLIO FILTROA EROSITA  
**15 MINUTU DOAN BOXEAN**

AURREKO+ATZEKO FRENOAK EROSITA  
**FRENO GARBITZAILEA DOAN**

OLIOA+OLIO ETA ERREGAI  
FILTROA EROSITA  
**30 MINUTU DOAN BOXEAN**

**Ondo pasatu San Migel jaietan!**

www.reparatuvehiculo.es

N-634 errep. Durango - Bilbao 82 km.  
UEI-3 ind. 5 behea - 48215 Iurreta Tel/Fax: 946 817 914

**KENAI**  
Reparatzaileak eta mekanikariak

www.kenaizentrum.com

✉ kenai@kenaizentrum.com  
🐦 @kenai\_zentroa  
📌 Kenai

Dantzari auzunea 6,5 behea  
48 215 Iurreta (Bizkaia)  
t: 946 570 970 m: 688 877 455

**SERAPIO CALVO**  
eskaiolazko dekorazioak

- SABAI ERREGISTRAGARRIAK
- PLADUR SABAIK
- APALAK

Tallerra  
Bidebarrieta, 7 behea • IURRETA • Tel.: 946 811 512  
Faxa: 94 466 81 00 • e-posta: serapiocalvo@euskalnet.net

**ARRIBIDE**

Ondo pasa San Migeletan!

Tel.: 946 818 381



**Ahari lurreta bertan behera**

Irailaren 22an ospatzekoa zen XXVI. Ahari Iurreta bizikleta ibilaldia bertan behera gelditu da aurten. Iurreta Txirrindulari Elkarteko kideen esanetan, irailaren 22an ospatzekoa zen, baina "Bizkaiko trafiko ordezkaritzak ez du baimenik eman egun horretarako". Prentsa oharrean diotenez, "Ertzaintzak ezin diezaioke estaldurarik eman gure martxari". Komunikazio hori Iurreta Txirrindulari Elkarte-kook irailean jaso dugu, nahiz eta, Bizkaiko Federazioko web-gunean urte hasieratik Ahari Iurreta ibilaldia data horietarako iragarri eta onartua izan.

**Errespetu eske**

Antolatzaileen berbetan, "jaie-tan jarrera txarrik ez dugu onartuko". Joan zen urtean Elizaldeko etxebizitza berrien arkupe-tan gertatutakoa gogora ekarri du jai batzordeak. Botiloia egiten zebiltzan gazte batzuek, beheko solairuko ateak apurtu -udalaren lokalak dira- eta makina bat apurtu zuten: "Jaien antolatzaileok jaietz gozatu gura dugu, eta ez dugu horrelako jokabiderik onartuko", gehitu dute.

Aurtengo egitaraua prestatzeko 45.000 euroko aurrekontua izan du. Udalak 23.000 euroko diru-laguntza eman du.

**Izagirreraren kartelak iragarriko ditu jaiak****> A. U.**

Antton Izagirre 20 urteko iurretarraren kartelak irabazi du aurten jaietako kartel lehiaketa. Bederatzi parte-hartzailearen artean jai batzordeak bost sailkatu zituen. San Juan bezperako jaiaren plazan ikusgai jarri zituzten, eta Izagirrerena jaso zituen boto gehien.

*Zu ere dantzari* izenburua jarri dio egileak bere lanari. Prentsaurrekoan jakitera eman duenez, "plazara irten ginen kartelerako argazkiak aterazera, baina osoak irten ziren. Bigarrenez bajatu ginenean, zapatilei zinta eta txilinak jarri genizkion". Horrela sortu du egileak 500 euroko saria eskuratu duen lana. Kartelaren esanahiaren inguruan galdetu-

ta, iurretarrak azaldu duenez, "inori meriturik kendu barik, erromeriara etorri ezin direnak dantzaren daudenean jaien protagonista izango direla adierazi gura du". Lehiaketara aurretik aurkeztu arren, lehenengo saria irabazten duen lehen aldia da.

Antton Izagirre 20 urteko iurretarraren kartelak irabazi du aurten jaietako kartel lehiaketa

**EBANISTERIA - AROZTEGIA****ELMI**

Arriandi industrialdea, z/g  
Tel./Faxa: 94 620 07 69  
48215 IURRETA

**TOLDOS  
LECE<sup>S/L</sup>**

Kataide industrialgunea,  
14.pabiloia (Musakola auzoa)  
Tf.: 943 792 383  
Telefaxa: 943 770 445  
20500 ARRASATE

Mallabierna auzoa, 6  
Telefaxa: 94 681 76 19  
48215 IURRETA

**Inork baino hobeto  
eguzkiari aurre egiten diogu**

**LAGOI<sup>S.L.</sup>****ERAIKUNTZARAKO  
MATERIALA**

**Biltegia:**  
Arriandi auzoa z/g • Iurreta  
Tel.: 94 620 33 22  
Faxa: 94 621 58 74

**Erakusketa:**  
Montebideo etor. • Durango  
Tel.: 94 621 52 84  
Faxa: 94 621 52 85  
www.lagoi98.com

# Txahal okela dastatzeko aukera, azken eguneko ferian

Baserriko produktuak eta artisauek landutakoak egongo dira salmentan



Iaz bezala, aurten ere feriak arrakasta edukitzea espero dute antolatzaileak.

## > MARKEL ONAINDIA

Udalak San Migel jaietako azken egunean antolatzen duen feriak jendetza batzen du. Urtero, domeka goizean jai giroa sortzen da Andaparape aparkalekuan eta bere inguruetan. Baserriko produktuak eta artisauek landutakoak izaten dira ikusgai zein salgai. Gainera, badago beste ekintza erakargarri bat: txahal okelaz egindako pintxo banaketa. Iaz, esaterako, 1.000 pintxo inguru saldu zituzten, eta aurten ere, kopuru horren bueltan ibiltzea espero dute. Kopuru horrek azokaren eta pintxo salmentaren arrakasta islatzen duela uste dute arduradunek.

Txahala aurreko egunean hasten dira prestatzen Andaparapen. Burruntzian egiten dute, eta orduetan lan egin ostean, domeka goizean ekiten diote salmentari. Eguerdiko 12:00ak inguruan hasten ei da lan gogorra, jende gehien batzen hasten denean.

## 40 bat erakusmahai

Oraindik datu ofizialik eman ez duten arren, 30 bat produktorek parte hartuko dute azokan. Ber-

tan salduko dituzte barazkiak, pastelak, ogiak... Postu horiez gain, artisauek ere edukiko dute lekua. Hamar artisaubatu dira, gutxi gorabehera. Nekazariak eta artisauek kontuan hartuta, guztira, 40 bat erakusmahai ipiniko dituzte.

Nekazariak eta artisauek kontuan hartuta, guztira, 40 bat erakusmahai ipiniko dituzte

## Herri-kirol erakustaldia

Azokaren harira jai giroa sortzea da antolatzaileen asmoa, eta horregatik, beste hainbat ekintza ere antolatu dituzte. Esate baterako, Mutrikutik etorritako herri-kirol talde batek erakustaldia egingo du plazan, 12:30ean. Mutilak eta neskek ibiliko dira proban.

Bestalde, ludoteka zerbitzua ere eskainiko dutela adierazi dute, umeekin joango diren gurasoei aukera bat gehiago eskainita.

# Krome taldearentzako aukera, herriko plazan

Arkada Sozial eta Itziarren Semeak taldeekin batera rock jaialdian parte hartuko du Krome taldeak, irailaren 27an, 22:30etik aurrera

## > M.O.

Iurretako Krome musika taldeak herriko jaietako rock kontzertuan joko du aurten. Plaza garrantzitsua izango da eurentzat. Arkada Sozial eta Itziarren Semeak taldeekin batera parte hartuko dute irailaren 27ko jaialdian, gaueko 22:30etik aurrera. Carlos Galan taldekideak azaldu du "aukera itzela" dela taldearentzat: "Bi talde indartsugaz joko dugu". Horregatik, jaialdi ona izango dela uste du, eta ilusioz egin dituzte aurreikuspenak. "Espero dugu jendea animatzea", dio Galanek.

Talde gaztea da Krome. Duela urtebete bakarrik sortu zuten bost gaztek. Lehenago beste talde batean ibilitakoak dira, baina Krome proiektuari orduan ekin zioten. Galanek 17 urte dauzka,

eta gainerakoek 19. Gazteak eta hasiberriak dira, baina indarraz hasi dute ibilbidea. Izan ere, iaz Durangaldeko maketa lehiaketan euskarazko abestirik

Durangaldeko maketa lehiaketan euskarazko abestirik onenaren saria lortu zuten

onenaren saria lortu zuten. Gainera, zenbait kontzertu ere eman dituzte hilabeteotan.

Kanta berriak eta bertsoak Hardcore estiloko musika lantzen dute iurretarrek. Sanmigiletan ordubeteko kontzertua

emango dute, Galanek dioenez: "Duela hilabete hasi ginen kontzertua prestatzeko entseatzen". Hamahiru kanta inguru joko dituzte, eta horietatik hamar dira eurenak. Bi berriak dira, gainera. Beste hiru abestiak bertsoiak izango direla azaldu du, Kop eta Berri Txarrak taldeenak, esate baterako.

## Diskoa ateratzeko asmoa

Iurretako kontzertua aukera lez ikusten dute, eta gauza bera gertatzen da Durangon urriaren 19an eskainiko dutenagaz: Deaffest jaialdi erraldoian parte hartuko du Kromek. Rockzaleei euren musika aurkeztuko diete.

Gogotsu daude Krome taldekideak, eta aurrera begira disko bat kaleratzeko asmoa ere badaukate.



Krome taldeko musikari gazteak.

**AMAYA**  
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA  
(Orozketako errepidea)  
48215 Iurreta / Bizkaia  
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 • Faxa: 946 203 818  
emaila: oficina@amayaautoreparaciones.com • www.amayaautoreparaciones.com

**Mallabienea**

M.Z.O. ITURGINTZA  
GASA  
BEROGAILUA  
ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabienea industriagunea, 6 - 48215 Iurreta - Tel.: 94 681 88 62 - mallabienea@mallabienea.com

**Gauargi Taberna**

Te bereziak  
Gozari berezia

Dantzari, 5 - Iurreta

**RAFA IRIONDO** | 46 urte, Oromiño (Iurreta). Durangon bizi da / Luhartz taldeko soinua eta teklatura

# “Iurretak plaza moduan funtzionatu egiten du; zer berezi hori du”

San Migel bezperan, irailaren 28an, Luhartz taldeak erromeria eskainiko du plazan. Taldea momentu gozoa bizitzen ari dela dio. Belanaldi aldaketak gorakada bat ekarri omen du: “15 eta 16 urteko gazteak etortzen dira gure erromerietara”

**> JOSEBA DERTEANO**

## Etxean jotzeak oraindik zirrara berezia eragiten dizu?

Guretzako berezia da arrazoi birengeatik. Batetik, Iurretak plaza moduan funtzionatu egiten du. Badu zer berezi hori. Edozein talderi galdetuta berdina erantzungo luke. Bestetik, gu talde txikitxo ginenean Iurretan sasoiko talderik entzutetsuenak ikusten genituen, Egan eta abar. Eta, ondoren, gu bertan jotzen hasi ginenean, plazako giroak zer ondo erantzuten zuen ikustea oso pozgarria izan zen. Gainera, orain jende gaztea hasi da erromerietara joaten eta...

## Erromeriek gorakada bat izan dute azken urteetan?

Bai, azken urteetan gorakada handia izan du. Sasoi bateko egoerari erreparatuta, nik geure buruari, edo hor genbiltzanoez egotzen diet errua. Egon zen sasoi bat erromeria munduak gainerako proposamenek baino kontsiderazio baxuagoa zuena, diru-iturri soil bat edo gainerako musika estiloen gehigarri bat balitz moduan ikusten zen. Geugandik hasita. Eta norberarengandik sentzazio hori irreteten bada, gaitza da plazan beste sentzazio mota batzuk transmititzea. Orain, azken lau-bost urteetan topera gabilta, baina geuk ere egoera horri buelta eman guran lan bat egin dugulako. Zer nahi du jendeak? Galdetu egin diegu, eta ondoren kontzertuetan probak egin ditugu. Eta ge-

ro proba horiek baloratu egin ditugu. Esaterako, gure erromerietako zati bat dantzak erakusten egiten dugu. Probatu eta funtzionatu egin zuen.

## Zuena den dantza propio bat ere baduzue. Zelan sortu zenuen?

Dantza horren atzean istorio kurioso bat dago: abestia Mikel Garikoitzena da. Estatu Batuetan erromeria bat eskaintzen genbiltzala sortu zen. Durangoko Kriskitin eta Galdakaoko Andra Mari taldeko kideak ere hantxe zauden, eta eurak hasi ziren hemen zabaltzen. Apurka jendearen artean dantza hori ikasteko gogoia zabaldu, eta hortik hasi ginen. Esaterako, gure webgunean badago aurtengo dantzari eguneko bideo bat 2.000 bat lagun dantza hori egiten agertzen direna. Hori kristoren poztasuna da.

## Zuen erromerietan nahitaezko osagai bihurtu da.

Bai. Erromerietan, alde batetik, gure gustuko kantak jotzen ditugu, ZZ Top, Lynyrd Skynyrd... Baina, bestetik, argi duguna da plazan jendeari gustatzen zaiona eskaini behar dugula. Guk hori nahi dugu; jendeak dantza egin eta gozatu dezala. “Zein onak gara eta zer ondo jotzen dugu!” bezalakoak esateko badaude beste musika estilo batzuk.

## Astegunetan lana eta asteburuetan ere bai. Gustuko tokian aldaparik ez?



Rafa Iriondo, Durangoko Plateruen plazan duten lokalean.

Hori da, gustuko dugu eta ni ase-bete egiten nau. Gaur hemen eta bihar han ibiltzen gara, eta egunero-egunero eutsi behar diogu ilusio horri. Gaitza da, baina badiotsut, urtea joan eta urtea etorri, poztasun handiak hartzen dira.

## Non dago Luhartz orain eta zein norabidetan doa?

Alde askotatik begiratuta, Luhartz momentu gozoan dago gaur egun. Euskal rock and rolla modan zegoen sasoiaren zer eta soinuak jotzen hasi nintzen, 13 bat urte nituela. Urte askoan entzun dugu halako mespretxu tonuarekin, “zer zabiltzate, erromerietan?”. Niri komentario horiek ez

didate askorik eragin, egin dudanagaz harro sentitu naizelako beti. Behin lagun batek esan zidan: “Nork esango zizun zuri soinuak egon zinen tokitik, gaur zauden tokira eramango zintuela?”. Hemen musika estiloen gainean beti konplexu asko egon da. Orain, bakoitza bere tokia hartzen dabil. Alde horretatik, beste mentalitate eta zabaltasun bat nabaritzen dut gaur egun.

## Mende laurdenetik gora joan da Luhartz sortu zenetik. Belanaldi aldaketak zelan eragin dizue?

Belanaldi aldaketa egon den momentuan, gu oso toki onean geratu garela uste dut. Gu hasi

ginenean, tokian tokiko jai batzordeetako ordezkariak gure adina zuten. Gaur egun, jende horrek 50 urte edo gehiago ditu. Orain hamar urtetik hona, belanaldi berria sartzen joan den heinean, ez genekien etorkizunak guretzako zer zeukan gordeta. Eta gure sorpresarako belanaldi aldaketa horrek, beherakada beharrean gorakada ekarri digu. 15 eta 16 urteko jendea etortzen zaigu plazara. Oso momentu gozoan gaude. Norantz goazen? Ilusiorik ez dugunez galdu, jendeak nahi duen tokiraino joango gara. Gure aldaketak, garenetik abiatuta aurrera begirako pausuak izan daitezen saiatzen gara.

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK**  
**IZARBETIEN 21**  
 Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldeko eta komuneko altzariak  
 Bixente Kapanaga, 3 - 48215 Iurreta Tel.: 94 681 22 80 Faxa: 94 621 63 36 izarbek@izarbek.com  
 Ondo pasau San Migelak!

**lurretako BATZOKIA**  
 Eguneko menua Enkargatutako afariak Asteburuetako afariak  
 C/Bixente Kapanaga, 21 - Tel: 94 620 27 64

**UNDARRI BIKE**  
 Bidebarrieta, 5 - bajo 48215 IURRETA  
 undarribike@undarribike.com Bizikleten salmenta eta konponketa.  
 94 681 78 08 www.undarribike.com



**ASIMAIR COMPRESORES**  
 SALMENTA ETA ASISTENTZIA TEKNIKO ZERBITZUA  
 Arriandiko Industriagunea - UA14 - 13. arloa 5.pabilioia. 48215 IURRETA (Bizkaia)  
 Tel.: 94 620 24 15 - 94 620 20 64 Faxa: 94 620 37 86 E-maila: asimair@telceline.es

**IK Iurreta kopistegia**  
 INPRENTA DIGITALA  
 Bidebarrieta, 1 behea (Korreos ondoan) 48215 IURRETA  
 Tel. 94 681 10 70  
 planos@iurretakopi.com mac@iurretakopi.com

**OKINDEGIA ALBERDI**  
 Mallabierna, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA

# RENAULT CAPTUR HARRAPATU BIZITZA



 Renault España
  Renault ESP



Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4raino. CO<sub>2</sub> isuria (g/km) 96tik 125eraino.

**GAURSA AUTOAK**  
ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA  
KALE NAGUSIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO  
[www.gaursaautoak.com](http://www.gaursaautoak.com)

**DRIVE THE CHANGE**



**BESTE ALDE**



rent a car

**ALOKATZEKO IBILGAILUAK,  
ZURE PATRIKAREN NEURRIRA**

**618 88 12 42**

[bestealde@bestealde.com](mailto:bestealde@bestealde.com)

[www.bestealde.com](http://www.bestealde.com)

**MERKEAGOA**

DA

**%10**

GURE WEBGUNEAREN BITARTEZ  
ALOKATZEN BADUZU

[www.bestealde.com](http://www.bestealde.com)



**BULEGOAK: IURRETA • BILBAO • IRUN • EIBAR**

**> DANTZA**

# Martitzeneko saioak eta ekimen berriak Aikogaz

Urriaren 7an abiatuko du Aiko Taldeak ikasturtea, Durangoko Plateruenean



Euskal folkloreko dantzak ikasi eta praktikan jartzen dituzte, Platerueneko saioetan.

**> ITSASO ESTEBAN**

Durangoko Plateruenean batuko dira 2013/2014 ikasturtean ere, Aiko Taldearen dantza irakas-kuntza ekimenean parte hartzen duten lagunak. Martitzen arratsaldetan izango da ikasturteko asteroko hitzordua.

Seigarren urtea da Dantzaldi Ibiltarien ekimena martxan ipi-

Dantzarako musika jotzearen gozamina eta dantzarako gustua zabaldu gura dute Aiko Taldearen bultzatzaileek

niko dutena, eta urteotan, dagoneko bi mila dantzazalek hartu dute parte hainbat herritan egiten dituzten saioetan.

Emanaldietan “dantzarako musika jotzearen gozamina eta dantzarako gustua zabaldu gura dute: musika jo, dantzatu eta dantzatzen irakatsi”. Horretarako, herri dantzak irakasteko,

zuzeneko musika eskaintzen dute Aitor Furundarena, Alvaro Garcia, Sabin Bikandi, Elur Arruera, Ainara Artetxe, Juan Ortiz, Jon Gaminde, Martin Ariztimuño, eta Asier Garcia taldeko musikariek.

Seigarren urtea da ekimena martxan ipiniko dutena. Bi mila lagunek parte hartu dute orain arteko ikastaroetan

Martitzeneko Platerueneko hitzorduez aparte, azken urteetako hilabete behingo erronomia, eta beste hainbat nobedade ere eskainiko ditu Aiko Taldeak, ikasturte berrian: ekainaren 21ean dantza maratonia elkartuko dira, eta hiru hilik behin dantza seminario espezializatuak burutuko dituzte.

Talde bi osatuko dituzte Plateruenean jarduteko izena ematen duten dantzazaleekin: batetik, hasiberriena, eta bestetik, ekimenaren beste edizio batzuetan

Dantza maratonia elkartuko dira ekainaren 21ean, eta hiru hilik behin seminario espezializatuak eskainiko dituzte

ere parte hartu dutenena. Hasiberriek 18:30etik 20:00etara jardungo dute, eta 20:00etatik 21:30era esperientziadunek.

Urriaren 7an ekingo diote Aiko Dantzaldi Ibiltariaren ikasturte berriari, eta antolatzaileek aurreratu dutenez, hilabete horretan dohainik eta ezelako loturarik barik proba egiteko aukera edukiko dute hala gura dutenek.

Taldearen [www.aikotaldea.com](http://www.aikotaldea.com) webgunean, [aiko@aikotaldea.com](mailto:aiko@aikotaldea.com) helbidean, edo 634 423 539 telefono zenbakira deituta eman daiteke ikastaroan parte hartzeko izena. Matrikularen prezioa 150 eurokoa da.

**Folklore biziberritzeko**

Euskal folklorea biziberritu eta dantzari “herrietako ospakizunetan zuen protagonismoa bueltatzeko asmoz” abiatu zuten duela sei urte Aiko Taldearen ibilbidea. Dantzazaleak beste zaletu batzuekin elkartzeko topagunea eskaintzen du Aikok tailer eta erromerien bidez. Euskal Herriko bederatzi herritan eskainiko dituzte ikastaroak aurtien: Donostia, Bilbo, Galdakao, Sopela, Gernika, Durango, Iruñea, Azkain eta Markinan.

Soka-dantza, jota, porrua, balsa, mazurka, txotis, pasodoblea, polka, kontradantza edota kontrapasa dantzatzen ikasi nahi dutenei, estreinatzeko gunea eskainiko die Aikok.

**> ERAKUSKETA**

# Ruiz de Arkauteren 18 margolan, Museoan

Durangoko museoan inauguratu zuten barikuan, Ignacio Ruiz de Arkauteren lanen erakusketa

**> ITSASO ESTEBAN**

Ignacio Ruiz de Arkate pintore arabarraren lanen erakusketa ikusi ahal da Durangoko Arte eta Historia Museoan.

Joan zen bariku iluntzean egin zuten erakusketaren inaugurazio ekitaldia, eta egun horretatik urriaren 6ra bitartean izango dira erakusketan bildutako hemezortzi margolanak Durangoko museoaren areto nagusian ikusgai.

Olio pinturagaz, egur eta oihal gainean egindako lanak dira erakusketan baturiko gehienak. Durangoko erakusketara ekarritako koadro gehienak Ruiz de Arkatek teknika horregaz egindako kolore biziko koadroak dira, baina badago *rotring* errotuladoreagaz margotutako koadro serie bat ere. Formatu txikiagoko koadroak dira errotuladorez egindakoak, zuri-beltzekoak batzuk. 2010 eta 2011 urteetan egindakoak dira erakusketako koadro gehienak.

“Literaturarik barik, esaldi hutsik barik, euren kabuz defi-

nitzen diren 18 olio osatutako erakusketa da”, egilearen berbetan, Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai duguna.

Olio pinturagaz, hainbat euskarritan egindako margolanak dira erakusketan baturiko gehienak

“Literaturarik barik, esaldi hutsik barik, euren kabuz definitzen diren 18 lan” bildu ditu Ruiz de Arkatek

Martitzenetik barikura, 11:00etatik 13:30era, eta 16:30etik 20:00etara dago Durangoko museoan zabalik; zapatuetan, berriaz, 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara; eta goizez bakarrik (11:00etatik 14:00etara) domeketan.

**> MUSIKA**

# Bertako musikari gazteen taldeen zuzenekoak, Plateruenean

Durungaldeko hiru musika taldek jardungo dute, gaur, 22:00etan hasita, Durangoko Plateruenean antolatzen duten Lokaletik At jaialdian. Estilo oso desberdinetan diharduten hiru musika talde ariko dira: metal gogorra egiten duen Orion Child seikotea, 11 ikusteko jaiok durangarrak, eta Berriz eta Durangoko musikarrien En clave de dos taldeak.

Orion Child, 11 ikusteko jaiok durangarrak, eta Berriz eta Durangoko musikarrien En clave de dos taldeek joko dute

Bertako talde hasiberri eta gazteei zuzenean aritzeko aukera eskaintzen die Lokaletik At ekimenak. Durungaldeko zein inguruko herrietako taldeentzako ere zabalik dauzkate Platerueneko ateak. Parte hartu gura duten musika talde gazteek Durangoko Kafe Antzokira idatzita egin dezakete eskaria: [kultura@plateruena.net](mailto:kultura@plateruena.net) helbidean eman dezakete izena.

# Ikasturte berriko lan poltsarako hezitzaileak behar ditugu!!



ikasturtean zehar ere gurekin lan egiteko aukera izan dezakezu: zaintzak, tailerrak, ludotekak, eskola errefortzuak, gazteekin ekintzak...



## Baldintzak:

- Euskara maila ona
- Esperientzia aisialdiko ekintzetan
- Berbaroko formazio saio laburra eginda izatea \*

\* 1.formazio saio laburra: urriak 4, 17:00-19:00

(ikasturtean zehar saio gehiago eskainiko dira, baina oraindik zehazteke)

**Curriculumak aurkezteko epea:**  
**irailaren 27ra arte** (eguerdiko 13ak)

## Berbaro Elkarte:

Pinondo plaza 1, 1.solairua (Durango)

946202540 / [aisialdia@berbaro.com](mailto:aisialdia@berbaro.com)

# **Kirola**

> ARETO FUTBOLA

## **Areto-futboleko Hirugarren mailak gatza eta piperra berreskuratu ditu Durangaldean**

Iaztik jarraitzen duen Mallabia Tabirakolor taldeari, Elorrioko Buskantza eta Sasikoa Durango taldeak batu zaizkio aurten



### > JOSEBA DERTEANO

Gatza eta piperra bueltan dira areto-futboleko Hirugarren mailan. Bai, behintzat, Durangaldeko ikuspetik begiratuta. Iaztik jarraitzen duen Mallabia Tabirakolor taldeari Elorrioko Buskantza eta Sasikoa Durango batuko zaizkio aurten, iaz igoera lortu ostean. Proiektu berriek, hainbat ezberdinek eta lehia sanoek talka egingo dute denboraldi honetako dituzten sei derbietan. Hiru taldeek asteburuan ekingo diote ligari.



J. Iglesias



Mallabia (goian), Sasikoa (erdian) eta Elorrioko Buskantza (behean).

### Mallabiaren proiektu berria

Iaz desagertzeko zorian egote-tik, aurten proiektu sendo bateko protagonista izatera igaro da Mallabia. Etorkizunera begira, proiektu sendo baten lehen zutarrak ezartzen dabilta. Geronimo Ugarte entrenatzaile zaildua gidari dutela, taldea ia goitik behera eraberritu dute. Iaztik jokalaria bik eta atezain batek jarraituko dute. Hirugarren mailako oilarren artean borrokan aritzea da helburua, aurten ezin bada, datorren denboralditik aurrera.

Aurrendenboraldia makineria berria doitzen eman du Mallabiak: "Ez gara nahi genuen mailan ibili, baina normala da. Jokalari berri asko ditugu, azpiegiturak mugatuak dira, eta

horrek garapen prozesua moteldu egin du. Baina talde ona osatu dugula uste dut, eta ilusioz beteta gaude", azaldu du Ugartek. Orandik, taldea osatzeko jokalaria bi fitxatu guran dabiltzala azaldu du.

Sasikoa da liga etxean hasiko duen bakarra; bihar Soloarte hartuko dute Landako kirolegian

### Sasikoa mailari eustera

Sasikoak ere proiektu berria du aurten Juan Carlos Carrera entrenatzaile duela. Eta ez, ez gara izenekin okertu. Iaz Mallabia entrenatzen aritu zen Carrera Sasikoan dago aurten, eta Sasikoan ibili zen Geronimo Ugarte Mallabian. Areto-futbolak horrelako bitxikeriak ditu.

Talde berria klubeko jokalariekin osatu dute: iaztik jarraitzen dutenek, eta Sasikoa B taldetik igotakoek. Hala ere, taldea ez dagoela itxita adierazi du Carrerak: atezain eta hegal-pibot baten bila dabilta. "Hirugarren mailara bueltan, eta talde gaztea dugula ikusita, mailari eustea dugu helburu", dio Carrerak. Sasikoa da eskualdeko hiru

taldeetatik etxean ekingo dion bakarra. Bihar Soloarte hartuko dute Landakon. Aurrendenboraldian, lagunarteko partidubatean, 4-2 irabazi zion Sasikoak Basauriko taldeari, Carreraren esanetan, "hiru puntu jokoan daudenean beste kontu bat da".

### Elorriok aurpegi berri gutxi

Elorrioko Buskantzak, printzipioz, mailari eustea du helburu, esperientzia batu, eta mailan sendotzea. Aurrendenboraldian partidu onak eta kaskarrak tartekatu dituzte. Concepto talde indartsuaren kontra launa berdinduta "taldea apur bat hazi egin zen", onartu du Iker Saenz de la Cuesta entrenatzaileak. Ondorengo hiru partiduak, nahita, beheargoko mailakoen kontrakoak izan ziren, eta komerkiak izan zituzten. Esaterako, 3-5 galdu zuten Presion Break taldearen aurka: "Atzean ixten zaizkigunean zailtasunak ditugula ikusi genuen. Partidu horiek ondo etorri ziren fisikoki zein mentalki prestatzeko".

Oro har, iazko taldeari eutsi diote, eta hiru aurpegi berri bakkarik dituzte. Bi berriro hasi dira areto-futbolean: Ibon Salaberria eta Iñaki Pelaez. Hirugarrena gazte mailako taldetik igo dute: Joseba Pelaez. Asteburuan Donostian jokatuko dute.

> FUTBOLA

## **Elorrio, Iurreta, Abadiño, Zaldua eta Berriz baloia astintzeko prest**

Berrizek zuzendaritza berria du, eta klubagaz aurrera jarraituko dute

Bizkaiko hiru liga hasiko dira asteburu honetan eskualdeko bost taldegaz: Elorrio eta Iurretako Ohorezko mailan, Abadiño eta Zaldua Maila gorenean, eta Berriz Lehenengo erregionalean.

Iurretakok aurtengoa bigarren denboraldia du Ohorezko mailan. Iaz legez, mailari eustea dute helburu. Talde eraberritua dute; 13 jokalarik utzi dute Larrakozelai, eta beste hainbeste etorri dira. Talde teknikora Iban Lopez eta Jose Antonio Tinoco batu dira: lehenengo bigarren entrenatzaile lanean, eta bigarrena atezainen entrenatzaile.

Elorrio sei jokalarik utzi dute, eta lau ekarri dituzte: Jon Barredo (Elgoibarretik), Iñigo Uribe (Iurretakotik), David Lobato (iaz areto-futbolean aritu zen) eta Beñat Kortazar (Kulturaleko gazteen taldetik). Joan direnei

dagokienez, Jon Larrañaga izan da taldea uzten azkena: Hirugarren mailako Elgoibarren jokatuko du aurten.

### Igoberrri bi Maila gorenean

Iaz Maila gorenera igotzea lortu zuten talde bi lehiatuko dira aurten: Zaldua eta Abadiño. Biek ala biek, mailari eustea dute helburu. Zalduak entrenatzaile berria du: Unai Letona. Aurreko zazpi urteetan Durangoko Kulturalean aritu da, eta gazte mailetako hainbat talde zuzendu ditu. Iazko taldeagaz alderatuta, hiru jokalaria berri dituzte: Igor Arana (Iurretakotik dator), Borja Seara (Ermua taldetik), eta Julen Urkiza (Iurretako Btik).

Hamar urte dira Abadiñok Maila gorenean jokatzen ez zuena. Oier Gonzalezek darrai entrenatzaile, eta zazpi jokalaria

berri ditu taldean: Gorka Esteban (Iurretakotik), Jon Uribe eta Beñat Goikoetxea (Amorebietatik), Xabier Unzueta eta Jokin Armero (gazteen taldetik), Julen Fernandez (Kulturaletik), eta Jon Barahona (Berriztik).

### Berrizek bizirautea helburu

Azkenik, Berrizek Lehenengo erregionalean ekingo dio denboraldiari. Urrun geratu da Kulturalearen atzetik, eskualdeko bigarren talderik indartsuena zen sasoi. Aurten mailari eta klubari berari eustea dute helburu. Uztailean kluba desagertzeko zorian izan zen zuzendaritza batzordean erreleboa falta zelako. Udalak ere esku hartu zuen hainbat batzar deituz. Azkenean, zazpi laguneko talde batek hartu du gidaritza, eta Josu Aiartzaguna da presidentea.



Abadiñoren iazko irudi bat (goian) eta Iurretakoren aurtengo taldea (behean).

&gt; SOKATIRA

# Txinako tiralariek Abadiñon entrenatuko dute aste bitan

Irailaren 23tik urriaren 6ra Durangaldean egongo dira Txinako tiralariak



Joan zen asteburuan jokatutako zazpi herrialdeen arteko txapelketan tiraldi denak irabazi zituen Abadiño sokatira taldeak.

&gt; J. D.

Adituen esanetan, Txina munduko jarduera ekonomikoaren motor nagusi bilakatzeko bidean dago. Gainera, gero eta nabariagoa den hegemoniako bide hori gainerako esparruetara ere zabaltzeko asmoa dute, kirolera, esaterako. Azken urteetan sokatira gero eta txertatuago dago Txinan, eta Europako taldeek argi ikusi ahal izan dute hori munduko

txapelketetan elkarren kontra lehiatu direnean. Kantitatea badute, asko dira, eta kalitatean ere gorakada eman dute. Baina ez dute erdibidean geratzeko asmorik. Horrela, Abadiño sokatira taldeagaz hartuemanetan ipini dira, eta datozen aste bietan (irailaren 23tik urriaren 6ra) Durangaldean izango dira Txinako selekzio kirolariak eta entrenatzaileak, Abadiñoekin batera entrenatzeko.

Iaz Goierriko taldeagaz (Erandio) aritu ziren lur gaineko entrenamenduak egiteko. Orduan, egun bateko bisita egin zuten Abadiñora tiralari bik eta entrenatzaileak. Orain, iaz irekitako bideari jarraipena emango diote. Durangoko Ibaizabal ikastolan hartuko dute ostatu, eta egunero entrenatuko dute Abadiño kirolariak: "Oraindik metodologia prestatzen gabilza. Ez datozela tu-

rismoa egitera esan digute, eta egunero entrenatzeko asmoa dute. Seguruenik goizetan euren kabuz arituko dira, eta arratsaldetan gurekin", adierazi du Edu Mendizabal Abadiño sokatira taldeko entrenatzaileak. Txina maila ona duen selekzioa dela dio: "Eskoziako Munduko Txapelketan finalerdietan euren kontra lehiatu ginen 560 kilora arteko proban, eta nazio mailako txapelketa irabazteko zorian ere izan ziren".

&gt; Euskal olinpiadak

Bestalde, azaroan hasiko duten denboraldia prestatzen dabil apurka-apurka Abadiño sokatira taldea. Joan zen asteburuan zazpi herrialdeen arteko txapelketan parte hartu zuten Baigorri (Nafarroa Beherea). Txapelketa horretan probintzia bakoitzeko onenak hainbat modalitateetan lehiatu ziren (txorokil batzea, trontza, txingak...) eta modalitateetako bat sokatira izan zen. Abadiño kirolari denak irabazi zituen, baina ez zen nahikoa izan Bizkaia azken garaipena emateko. Modalitate denetan batutako puntuak in laugarren geratu zen Bizkaia.

Joan zen astera arte, zazpi herrialdeen arteko txapelketan parte hartu duen zortzikotea bakarrik ibili da entrenatzen Abadiño kirolariak, baina aste honetan talde osoak ekin die entrenamenduei. Iazko ia tiralari denek jarraitzen dute taldean. Azaroan Goma Gaineko Lauko Euskadiko Txapelketa hasiko dute, eta aurtengo hitzordu nagusia 2014ko otsailean Irlandan jokatuko den munduko txapelketa izango dute.

ADITUAREN TXOKOA



Eneritz Iturriaga

Txirrindulari ohia

## Irabazi beharra ala jolasa?

Profesional ibilbidea utzi nuenetik, azkeneko hilabeteetan, berriro hasi naiz kirolarekin harremanetan, eta tristea den kontu bat darabil buruan.

Umeez kirola egiten dute osasunerako ona delako, lehiaketa bat delako, edo gustura dabiltzalako lagunekin? Hainbat ikuspuntu atera ditut. Esaterako, ume batek Llorentek moduan jokatu nahi du, edo bere fama edukiki? Eta bere gurasoek kontu korrontea ere bai? Eta entrenatzaile batek, txapeldun bat bakarrik? Galdera gaiztoak dira, baina oso errealistak.

Umeei ezin dakieke ilusioa kendu kirol horretan onak ez direlako, edo ez dutelako maila ematen. Horrela hasten dira umeen lehenengo arazo serioak, autoestimari, itxura fisikoari zein elikadurari dagozkienak. Ez gara konturatzen taldean egiten diren mespretxuak bertan gelditzen direla betirako. Gaztea nintzenean igaro nituen nik, eta orain berriz berdina ikusten nabil. Umeei, hasteko, kirola osasunerako zein harremanak sendotzeko ona dela erakutsi behar zaie. 14 urteko zenbat txapeldun ezagutu ditut orain non dabilzan ere ez dakidanak? Umeez, ume dira. Desberdin ditzagun jolasa eta lehia. Mundua benetan zelakoa den ikusteko badituzte urteak aurretik. Utzi diezaiegun umeei euren errealitate birtualean jolasten, presiorik gabe, gero ere etorriko dira-eta momentu horiek!

&gt; SASKIBALOA

## Tabirakoren aurkezpena gaur, Landako kiroldegian

Klubeko talde guztiak aurkeztuko dituzte

Tabirako Saskibaloia Taldeak bere taldeen aurkezpen ofiziala egingo du gaur, 17:30etik aurrera, Landako kiroldegian. Gazte txoenetatik nagusienetara, banan-banan irtengo dira taldeak kantxa erdira, denboraldiko

argazki ofiziala ateratzeko. Bestalde, emakumeen talde nagusiak Baque torneo jokatu du bihar eta etzi. Gizonen talde nagusiak joan zen asteburuan jokatu eta irabazi zuen torneo, finalean Arrasateri nagusituta.



Joan zen asteburuan Baque torneo irabazi zuen gizonen talde nagusiak.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK  
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga 19, behea - 946 816 673 - lurreta  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)

Solaguren kalea 3  
Tel.: 94 681 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
E-mail: [urtiaga.sl@terra.es](mailto:urtiaga.sl@terra.es)  
MATIENA  
ABADIÑO

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK  
ETA BEROGAILUAK, AZULEJU, ZOLADURA,  
TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

**hitz**  
liburudenda

artekalea 14  
durango  
94 681 07 76  
[info@hitzliburudenda.com](mailto:info@hitzliburudenda.com)



&gt; PISTA

# Denboraldia ixteko, urre bi eta brontze bat Isasirentzat

Ziortza Isasik hiru domina lortu ditu pistan, gazteen Espainiako txapelketan



Ziortza Isasi irudiaren erdian, txapelketan irabazitako hiru dominetako batekin.

## > JOSEBA DERTEANO

Denboraldiko azken hitzorduan, pistako Espainiako txapelketan, urrezko domina bi eta brontzezko beste bat irabazi ditu Ziortza Isasi elorriarrak gazteen mailan. Jazarpen proban eta abiadura olimpikoan lortu ditu urrezko dominak, eta puntuazioan brontzezkoa.

Jazarpen probako urrea irabazterik ez zuela espero adierazi du 18 urteko elorriarrak: "Ni baino hobeak bazeudela uste nuen, nire taldekide Ane Iriarte edo Alicia Gonzalez asturiarra,

esaterako". Garbi zuen dominen borrokan sartzeko denbora ona egin beharko zuela; eta ona baino hobe egin zuen, bere ibilbideko onena modalitate horretan: 2.35.98. Iriarte taldekideak jantzi zuen zilarra. Urrezko bigarren domina Ane Iriartegaz taldea osatuta irabazi zuen, abiadura olimpikoan. Brontzezkoa inurri lanaren ondorioa izan zen. Puntuazio proban Ane Iriarteri ahal zuen guztian laguntzea zen ezarri zioten zeregina, eta horrela egin zuen, baina aldiro-aldiro puntuak batuta.

Azkenean, Iriartek urrea jantzi zuen, eta Isasik brontzea.

## Behetik gorako bidea

Aurtengo denboraldian behetik gorako bidea egin du Isasik. Eroriko batzuen ondorioz, bere mailatik behera aritu zen hasieran, baina azken txanpa harri-garria osatu du. Gogoratu behar da abuztuan zilarrezko domina irabazi zuela errepidean, Espainiako erlojupeko txapelketan. Datorren urtean pistan zein errepidean, bietan jarraitzea gustatuko litzaiokeela dio.

tzia: Donostia, Zumaia, Mutriku, Andoain eta Tolosako bikoteak etorriko dira. Bizkaiak lau ordezkari izango ditu: Gernika, Berriatua, Markina eta Durango. Nafarroa Noain eta Cabanillas herriekin egongo da ordezkatuta, eta Ipar Euskal Herria Biarritz eta Donibane Lohizunerekin. Arabatik eta Kataluniatik Gasteizko eta Bartzelonako bikote bana etorriko dira.

Durango zesta-punta eskolako bikotea Asier Azkarate durangarrak eta Iker Abad getxoztarrak osatuko dute. Printzipioz, ez daude txapela janzteko fabritoen artean. Domeka honetan Donostiaren kontra jokatuko dute lehen kanporaketako partida. Faborito nagusien artean Berriatua kokatu daiteke. Esaterako, iaz Alberdik eta Garaldek osatutako Berriatuko bikoteak irabazi zuen txapelketa. Aurten Alberdik Ubillarekin osatuko du bikotea.

## Asteburuko partiduak

Bihar arratsaldean partidu bi jokatuko dituzte. Lehenengoan Gasteiz eta Noian neurtuko dira, eta bigarrenetan Cabanillas eta Zumaia. Domekako partiduak Durango-Donostia eta Markina-Tolosa izango dira.

&gt; MENDI DUATLOIA

## Hilaren 28ra arte apuntatu daiteke Mallabiko proban

### > J. D.

Irailaren 29an Mallabiko Mendi Duatloia lehiatuko dute. Bertan parte hartzeko izen-ematea irekita dago irailaren 28ra arte. Webgune honetan apuntatu daiteke: [www.mendiduatloia.com](http://www.mendiduatloia.com).

Goizean, 10:00etan, umeen lasterketa hasiko dira. Gaztetxoentzako lasterketa bi prestatu dituzte: 8 urteko beherakoentzako bat, eta 8-14 artoentzako beste bat. Nagusien proba 11:00etan hasiko da: 6.68 km korrika, 16 bizikletan, eta beste 3.34 korrika. Ondoren, herri bazkaria egongo da plazan. Bazkaritarako izen-ematea hilaren 23an amaituko da: [mallabiaduatloia@hotmail.com](mailto:mallabiaduatloia@hotmail.com).

### > BTT MARTXA

## Mendi bizikleta martxa bihar, Otxandion

Zapatuan IX. Mendi Bizikleta Martxa egingo dute Otxandion. Ibilbide bi prestatu dituzte: 40 kilometrokoa eta 17 kilometrokoa. Luzea 09:30ean hasiko da Otxandioko plazan, eta San Martin, Azpikoarri, Aldoia, Motxotegi, Gomilatz, Mirugain eta Kondebatsotik zehar ibiliko dira. Ibilbide laburragoak zailtasun gutxiago du, eta 09:45ean hasita, Matadero, Presazelai, Aldoia, Gordobil eta Gomilatz ingurutik ibiliko dira. Edariek eta janariekin atondutako anoa postuak Gomilatz eta Otxandioko plazan ipiniko dituzte. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke: 12 euro federatuek eta 15 federatu gabekoek. Plaza kopurua 300 parte hartzaile mugatuta dago.

### > SURFA

## Surfaren bueltan Irlandara joateko aukera, urrian

Cross Culture Surf elkarteak sustatutako proiektuaren bidez Euskal Herriaren eta Irlandaren arteko truke programa abiatuko dute 13-17 urte arteko gazteei zuzenduta. Surfa praktikatzeko, esperientziak partekatzeko, ingelese hobetzeko, eta herrialde berri bat ezagutzeko aukera eskainiko dute. Urriaren 27tik azaroaren 3ra euskaldunak Irlandara joango dira (Lahinch ingurura), eta 2014ko apirilaren 12tik 19ra irlandarrak Euskal Herrira etorriko dira. Oraindik ekimenean parte hartzeko hiru plaza libre daude la adierazi dute antolatzaileek: [www.crossculturesurf.com](http://www.crossculturesurf.com).

&gt; AGENDA

### > FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

##### Durango Kulturala-Basconia

· Zapatuan, 18:00etan, Tabira futbol zelaian.

#### OHOREZKO MAILA

##### Elorrio-Moraza

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalde futbol zelaian.

#### MAILA GORENA

##### Zaldia-San Pedro

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarria futbol zelaian.

##### Abadiño-Lekeitio

· Zapatuan, 17:00etan, Astola futbol zelaian.

#### LEHENENGO ERREGIONALA

##### Berriz-Arrautzaldeon

· Domekan, 11:30ean, Berrizburu futbol zelaian.

### > ARETO FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

##### Sasikoa-Soloarte

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

### > SASKIBALOIA

#### AURKEZPENA

##### Tabirako Saskibaloi Taldea

Barikuan, 17:30ean, Landako kiroldegian. Klubeko talde guztiak aurkeztuko dituzte, eta argazki ofizialak aterako dituzte.

### > PILOTA

#### XXX. SAN FAUSTO ZESTA PUNTA TXAPELKETA

##### - Gasteiz-Noain

##### - Cabanillas-Zumaia

Zapatuan, 18:00etan, Durango Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

##### - Donostia-Durango

##### - Markina-Tolosa

Domekan, 11:30ean, Durango Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

### > MENDI IBILBIDEA

#### IX. OTXANDIOKO MENDI MARTXA

- Ibilbide luzea: Otxandio, San Martin, Azpikoarri, Aldoia, Motxotegi, Gordobil, Nebera, Gomilatz, Mirugain, Otxandio, Kereixara, Kondebasa, Otxandio (40 kilometro)  
Zapatuan, 09:30ean, Otxandioko plazatik.

- Ibilbide laburra: Otxandio, Matadero, Presazelai, Aldoia, Gordobil, Gomilatz, Inola eta Otxandio (17 kilometro)  
Zapatuan, 09:45ean, Otxandioko plazatik. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke: 12 euro federatuek, 15 federatu gabee.

### > PILOTA

#### XXVI. OLAZAR PILOTA TXAPELKETA

##### Lau Terdian:

##### - Olano - Olaetxea II

##### Binaka:

##### - Santxo-Imaz / Elezkano I-Kastillo

Irailaren 26an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan.

### > ZESTA-PUNTA

## Afizionatuetako onenak lehiatuko dira Durangon

Bihar XXX. San Fausto Zesta Txapelketa hasiko da

Urtero legez, Ezkurdi Jai Alai zesta-punta eskolak antolatutako San Fausto zesta-punta txapelketak afizionatu mailako zestalaririk onenak batuko ditu Durangon. Bihar hasi, eta zapatu arratsaldero (18:00etan) eta

domeka goizero (11:30ean) jokatuko dituzte jardunaldiak. Finala urriaren 19an jokatuko dute. Guztira 15 herritako bikoteak lehiatuko dira nagusien mailan. Gipuzkoa da ordezkari gehien izango dituen probin-



Alberdi eta Garalde iazko irabazleak.

# ➤ Aisialdia

➤ MENDI IBILBIDEAK



Urkiolatik igarotzen da Orixol erreferentziatzat hartzen duen ibilbidea. Durango MTB

## Orixol mendiaren magaletik bizikletaz

Bizikletako pedalei eraginda, Urkiola igaro eta Orixol mendiaren magaletik ibiliko da txirrindularia

Anboto mendikatearen iparraldetik irten, hegoaldera pasatu, eta berriro iparraldean amaitzen da Orixol mendia erreferentziatzat duen ibilbidea. Bizikletako pedalei eraginda, Urkiola igaro eta Orixolen magaletik ibiliko da txirrindularia, paraje ederrak ikusteko aukeragaz. Guztira 48 kilometroko martxa izango da, bost orduan gutxi gorabehera osatzekoa.


Durango Tabira auzoan dago irteera. Handik Abadiñorantz joan behar da auzobidetik, Mendiolara ailegatzeko. Atxartetik igaro eta Urkiolara igotzea, bizikletariaren hurrengo eginbeharra. Urkiolan Pol-Pol edo Asuntzerako bidea hartuko du, pistatik. Pol-Polen, pistari jarraitu, eta Zabalandira helduan, eskumara jo. Lezeagako mendi-lepora helduko da horren ostean. Aramaio,

Orixol eta Ipizteko bista politik ikusten dira bertatik; atsendetxo bat hartzeko gune egokia izan ahal da, beraz.

Gero, Etxaguenerantz joan behar du txirrindulariak. Ori-

xol inguratzen hasiko da hortik, Kruzetatik Orixol igotzeko ingurunea heldu arte. Pista hori hartu eta gero, lur edo lokatzezko bide batetik joango da Kruzeta eta Oleta batzen dituen

errepideraino. Urkiolara bueltatu beharko du hortik, errepide alboko pista aprobetxatuta. Azkenik, Urkiolatik Durangora, etorrerako bidetik edo errepide nagusitik joan daiteke.



### ZER IKUSI




Urkiola



Pol-Pol



Oleta





Ondorengo galderaren erantzuna badakizu...

*Hemen, Kafeari Baqué esaten diegu*

## Cafés Baqué produktuen otzara... zuretzat!



**Galdera: Zelan deitzen da Durangoko herri barruko txirrindulari eta zikloturista elkartea?**

Zure datuak eta erantzuna helbide honetara bidali



zozketa@anboto.org edo Bixente Kapanaga, 9-lurreta



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea 15, behea • 94 681 64 23  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

## ETXEBIZITZAK ALOKAIKURAN

DURANGO  
• 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak alokairuan

## ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO  
• DURANGO: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak alokairuan.  
ETXEBIZITZAK SALGAI  
DURANGO  
• ARTEKALE: 8 etxebizitzak eraikuntza hastera goaz. 2 logela eta logela bakarrekoak. Trastelekuarekin. 140.000 €tik aurrera.  
• DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldia eta despentsa. Berriztatuko. 114.000 €  
• ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekuak.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia balkoiarekin. Trastelekuak eta garajea.  
• FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldia, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.  
• ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.  
• ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO: 2 logela, 2 komun eta sukaldia amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.  
• BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia amerikarra.

LEKEITIO  
• 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekuak eta frontoia.  
ABADIÑO  
• ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra egongelarekin, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekuak.  
• 2 logela, 2 komun, sukaldia-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekuak eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO  
• 2 logela, komuna, sukaldia balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR  
• 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekuak.

## LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ  
• 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.  
IURRETA  
• 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.  
MATIENA-ABADIÑO  
• 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta frutarbolekin.  
OLETA (OTXANDIO)  
• 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.  
EUBA  
• 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.  
ABADIÑO  
• Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.  
DURANGO  
• Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.  
ZORNOTZA  
• LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.  
BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI  
DURANGO  
• Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatze.

## TXALETAK

• DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekoak eta bikoak.  
• ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

• ALLUITZ: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.  
• ANDRA MARIA: Halla, sukaldia, jangela, egongela, 2/3/5 logela, 2 komun eta egongelatxoak.  
• ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldia, 2 logela eta komuna.  
• ARKOTZA: Halla, sukaldia, egongela, 4 logela, komuna eta bainugela. Ganbara.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: halla, sukaldia, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garaje aeta ganbara.  
• BARRENKALEA: Halla, sukaldia, egongela, komuna eta 2 logela. Ganbara.  
• ERROTARITXUENA: Estreinatze. Halla. Sukalde jantzia, logela 1 edo 2, egongela eta 2 komun. Eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.  
• EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.  
• F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldia, 3 logela eta komuna.  
• JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldia, 2/4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sofoa.  
• MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldia, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara.  
• MURUETATORRE: Halla, sukaldia, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.  
• OÑITURRI: Halla, sukaldia, eskegitokia, sukaldia, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.  
• PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekuak.  
• SAN AGUSTIN: Halla, sukaldia, 5 logela, egongela eta 3 komun.  
• SAN IGNAZIO: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.  
• SASIKOA: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.  
• SASIKOA: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 3 logela eta komun 2. Ganbara eta garajea.  
• TXATXIENA: Halla, sukaldia, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.  
• UNDATORRE: Halla, sukaldia, 3 logela, egongela eta komuna.  
• ABADIÑO: Arlozabal: Halla, egongela, sukaldia, logela 2 eta komun 2. Terraza handia.  
• ABADIÑO-FERIALEKUA: Halla, sukaldia, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoi handia. Ganbara eta garajea.  
• ABADIÑO-MATIENA: Halla, sukaldia, egongela 2/3 logela eta komuna. Ganbara.  
• ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Egoera onean. Igogailua.  
• BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekuak.  
• BERRIZ: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta trastelekuak.  
• BERRIZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.  
• ELORRIO: Berreraikitze etxea, lursailduna.  
• IURRETA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia office-arekin, despentsa, 3 logela eta komuna. Terraza itxia eta trastelekuak. Guztiz berriztatua.  
• IURRETA: Arriandi auzoa. Halla, sukaldia, egongela, 3 logela eta komuna duxarekin.  
• MAÑARIA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ASKATASUN ETORBIDEA



• Eraikitzen dauden etxebizitzak. 1,2 eta 3 Hainbat promozio eraikitzen ari dira. 1, 2, 3 eta 4 logelakoak. Garajearekin eta ganbararekin. 185.000€tik aurrera.

### MARTXOAREN 8KO KALEA



• Aukera. Etxebizitza erdi berria salgai. 73 m2. Logela 2, komun 2, egongela handia eta sukaldia eskegitokiarekin. Balkoi 2. Garajea eta ganbara. 210.000€.

### SAN MARTIN ATARIA



• Durango erdian. 85 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. 5. solairua. 3 logela eta komun 2. Balkoi handia. Berogailua. 195.000€.

### ASKATASUN ETORBIDEA



• 3 logela, egongela, sukaldia balkoiarekin eta komuna. Berrizteko. 165.000€. Negoziagarria.

### AUKERA



• 67 m2. 3 logela. Orientazio ona. Leih guztiak aldatuta. Obraren bat edo beste behar du. 119.600€.

**Aipatutako etxebizitzek gain, Durangalde osoan etxebizitzak aukera zabala dugu, 50.000 eurotik aurrera.**

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

## ETXEBIZITZAK SALGAI

• ARTEKALE: 100 m2. 3 logela, 2 komun, egongela handia eta sukaldia officearekin. Bizitzeko sartzeko moduan. 136.000€.  
• ARANDOÑOTORRE: 100 m2. 3 logela. Terraza.  
• ANBOTO: 3 logela eta egongela. Berriztua. 143.500€.  
• ERDIGUNEAN: 2 logela, komuna eta egongela. Igogailua. Bizitzeko sartzeko prest. 116.000€.  
• ALLUITZ: 2 logela. Bizitzeko sartzeko moduan. Ganbara. Garaje itxia. 198.400€.  
• OIZ: 3 logela, egongela eta sukaldia. 3 balkoi.  
• TABIRA: Apartamentua. Erdi berria. Ganbara. 160.000€.  
• IURRETA: Estreinatze. Alokairuan. 550€. Erosteko aukerarekin.  
• IURRETA: 3 logela, egongela, sukaldia eta despentsa. Terraza. 139.000€.  
• MATIENA: 3 logela eta komuna. Berriztua. 126.000€.  
• TABIRA: 3 logela eta komun 2. Trastelekuak eta garajea.  
• MATIENA: Trañabarren. 3 logela, 2 komun eta egongela handia. Ganbara. Eguzkitsua. 195.000€.  
• ABADIÑO: Arlozabal. logela 2 eta komun 2. Garajea eta trastelekuak. 155.000€.  
• TXATXIENA: 3 logela, 2 komun, sukaldia eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea.  
• GARAI: Txaleta. Familia bakararentzako. 2.900 m2-ko lursaila.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: 90 m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukaldia eskegitokiarekin. Trastelekuak eta 2 kotxerako garajea.  
• IZURTZA: 2 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztatua. 124.000€.  
• BARRENKALEA: 3 logela eta egongela. Berriztatua.  
• BERRIZ: logela 2. Berriztua. 136.000€.  
• MURUETA TORRE: 95 m2. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Etxe guztiak kanpora ematen du. 240.000€.  
• IURRETA: 3 logela. 50.000€.  
• F.J. de ZUMARRAGA: 100 m2. 3 logela, egongela eta terraza. Igogailua.  
• OÑITURRI: Erdi berria. 80 m2. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.  
• SASIKOA: Trenbide. 95 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.  
• ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea.  
• IURRETA (Dantzari): 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua. Igogailua.  
• MURUETA TORRE: Azkeneko pisua. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra.  
• DURANGO: Txaleta. 400 m2. Garajea. Lorategia.  
• 900 m2. 3 solairutan banatuta. 330.000€.  
• BASERRIA: 421 m2. 7.500 m2-ko lursaila. 390.000€.  
• ATXONDO: Txaleta. 200 m2, 2 solairutan banatuta. 4.000 m2-ko lursaila.  
• BERRIZ: Txaleta. Abeletxe. Estreinatze. 362 m2.  
• BERRIZ-ELORRIO: Baserria. 2 etxebizitza. 420 m2. 22.000 m2-ko lursaila.  
• ABADIÑO: Txaleta. Bi familiarentzako. 380 m2. 3 solairu eta 380 m2-ko atikoa. 520.000€.

## ETXEBIZITZA BERRIAK

• ZALDIBAR: Kurutzazar plaza/Solonagusia. Garajea eta trastelekuarekin. Logela eta komuna: 118.000€ 2 logela eta 2 komun. 138.000€ 3 logela eta 2 komun. 178.000€. BEZ-a barne.  
• MAÑARIA: Etxebizitza estreinatze. 189.500 €.  
• IBAIZABAL: 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekuak barne. 247.000 €-tik aurrera.

# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Irailaren 20an eta 21ean,  
Durangoko San Agustinen

## Amama Ana

Durangoko San Agustín kulturgunean emanaldi bitan eskainiko du Durangoko La Papa Teatro taldeak 'Amama Anaren bidaia' izeneko obra. Euskarazko eta gaztelaniazko bertsiok eskainiko dituzte, zapatuan eta domekan, 18:00etan.



### Erakusketa

#### :: DURANGO

Urriaren 6ra arte, **Ignacio Ruiz de Arkauteren lanak**, Arte eta Historia Musean.

#### :: ZORNOTZA

Irailaren 29ra arte, **Bosteko**, Zelaieta zentroa.



### Ikastaroa

#### :: ABADIÑO

Urritik maiatzera, **Emakumeentzako jaketutza Eskola**: Coaching: hobekuntza pertsonalerako tresnak; Zaindu zaitez: amama zaintzaileentzako ikastaroa; Kateatu zaitez teknologia berrietan; Emakumeok eta euskal literatura; Munduko emakumeen literatura; Dantza mugimendu terapia eta dantza sortzailea; Dantza afrikarrak; Pelbis-zorua hezi eta gogortzeko ikastaroa; Mindfulness; Tertulia moreak; Autodefentsa feminista. Izen-ematea: udaletxean,

kultur etxeetan, edo 'berdintasuna@abadiano.org' helbidean.

#### :: BERRIZ

Irailetik abendura, **Emakumeen jaketuntzarako Eskola 2013**: Emakume ahotsak euskal literaturan; Jendaurrean hitz egiteko teknikak; Nola konpondu gatazkak nire eguneroko bizimoduan; Ai nire maitea, maite nazazu gutxiago baina hobeto; Topaketa kontatuz eta munduko emakumeen literatura. Izen-ematea zabalik, udaletxean.

#### :: DURANGO

2013/2014ko **Emakumeen jaketuntzarako Eskola 2013**: Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna; Gizartean eta politikan parte hartzea; Munduko emakumeenganako elkartzasuna eta hartuemana; Kultura berri bat sortzea; Osasuna eta generoa. Izen-ematea urriaren 2tik 11ra, Pinondo Etxean.

#### :: DURANGALDEA

**AEK euskaltegia**. Ordutegi zabalaren eskaintza. Izen ematea

zabalik: 'abarrak@aek.org' edo 946817349 telefonoan.

#### :: ZALDIBAR

Urritik abendura arte, **Emakumeentzako jaketuntza Eskola**. Pentsamendu feminista; Eraldaketa feminisotik; Ezetz esaten ikasi nahi duzu?; Txalaparta ikastaroa eta Posta elektronikoa; Izen-ematea zabalik.



### Bakarrizketa

#### :: DURANGO

Irailaren 21ean, 22:00etan, **Dani Mateo**, Plateruenean.



### Musika

#### :: BERRIZ

Irailaren 21ean, 22:00etan, **Kantautore gava: La Otra + Liberando el corazón**, Hiltegeixe gaztetxean.

#### :: DURANGO

Irailaren 20an, 22:00etan, **En clave de dos, 11 ikusteko jaiok eta Orion Child**, Plateruenean.

Irailaren 26an, 20:00etan, **Kantulagun**, Plateruenean.



### Antzerkia

#### :: BERRIZ

Irailaren 20an, 19:30ean, **Taberna**, Elizondo plazan.

#### :: DURANGO

Irailaren 21ean eta 22an, 18:00etan, **Amama Anaren bidaia**, San Agustinen.

#### :: ELORRIO

Irailaren 20an, 22:00etan, **Lingua nabajorum**, Arriola antzokian.



### Batzarra

#### :: DURANGO

Eguenero, 19:00-21:00, **Al-Anon elkartearen batzarrak**, Landako kiroldegiaren behealdean. "Zure senide edo lagunak edateko daukan erak zure izateko eran eragiten badu, lagundu zaitzakegu".



#### :: DURANGO | ZUGAZA

##### 1. aretoa:

##### Rush

Zuzendaria: Ron Howard

- barikua 20: 19:30/22:00
- zapatua 21: 19:30/22:30
- domeka 22: 19:00/21:30
- astelehena 23: 18:30/21:00
- martitzena 24: 20:00

##### One direction: this is us 3D

Zuzendaria: Morgan Spurlock

- zapatua 21: 17:00
- domeka 22: 16:45

##### 2. aretoa:

##### Asalto al poder

Zuzendaria: Roland Emmerich

- barikua 20: 19:30
- zapatua 21: 19:30/22:30
- domeka 22: 19:00/21:30
- astelehena 23: 18:30
- martitzena 24: 20:00

##### The Rolling Stones. Crossfire hurricane

- barikua 20: 22:00

#### :: ELORRIO | ARRIOLA

##### Asalto al poder

Zuzendaria: Roland Emmerich

- zapatua 21: 22:30
- domeka 22: 20:00
- astelehena 23: 20:00

#### :: ZORNOTZA

##### Asalto al poder

Zuzendaria: Roland Emmerich

- barikua 20: 22:00
- zapatua 21: 19:00/22:30
- domeka 22: 20:00
- astelehena 23: 20:00

##### Los pitufos 2

Zuzendaria: Raja Gosnell

- domeka 22: 17:00

## IRAILEKO AGENDA



|       |   |
|-------|---|
| 20    | <b>AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA</b><br><b>SAN MIGEL JAIK</b> Euskararen Eguna<br>18:00 Pirritx eta Porrotx pailazoak:<br>'Sentitu, pentsatu, ekin!'. Olaburu frontoian<br>Sarrerak: Ibarretxe kultur etxean.   |
| 21    | <b>IURRETAKO IV. MENDI MARTXA</b><br><b>ZALDAI MENDI TALDEA</b><br>Ibilbide luzea (42km, +2700m). -Goizeko 7:00etan Olaburu frontoitik.<br>Ibilbide laburra (25km, +1000m). -Goizeko 9:00etan Olaburu frontoitik.   |
| 22    | <b>XXVI. AHARI IURRETA</b><br><b>AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA</b><br>Zikloturisten Martxa (95 km). San Migel Plaza.  |
| 27    | <b>AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA</b><br>17:30 Umeentzako herri kirolak / 19:00 Antzerkia "Pottola" (Sarrerak Ibarretxe kultur etxean) / 21:30 Asto probak. Gonbitez / 22:00 Rock kontzertuak: Krome, Itziarren Semeak eta Arkada Social / 22:00 'Alma navarra', 'Alma latina' Askondo.  |
| 28    | <b>AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA</b><br>12:00 Montoitik txapligoak, ondoren, kalejira Dultzaineroekin / 12:15 "Begira jokoak" Amilburu / 14:00 Jubilatuen bazkaria, ondoren erromeria (Olaburu frontoian) / 14:30 Gazte bazkaria plazan / 17:30 IKT - Santurtzi Futbol partidua Larrakozelaia / 18:00 Doniel hatxa jasotzea eta Dantzarien azken entsaioa / 20:00 Pintxo-potea txostetan / 22:00 Erromeria "Luhartz" taldearekin. |
| 28,29 | <b>IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA</b><br>Hainbat ibilbide (79 - 95 km).   |
| 29    | <b>AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA</b><br>10:30 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara / 11:00 Meza nagusia. Ondoren Dantzari-dantza eta Gorulariak / 12:30 Bertsolariak, ondoren, igel txapelketa / 17:00 Haur dantzaldia "Jolastera..." Amilburu / 17:30 Asto probak. Gonbitez / 19:00 Dantzari-dantza eta nesken soka-dantza / 20:00 Pintxo-potea txostetan / 22:00 Erromeria "Luhartz" taldearekin.                 |
| 30    | <b>AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA</b><br>12:00 Kantuz kantuko kalejira / 17:30 Maiztegi Eskolako umeen dantza erakustaldia / 18:30 Ume eta gazteentzako "Disco festa" Xaibor Show Amilburu.  |



Irailaren 20an, 19:30ean, **Berrizko Elizondo plazan**

## TABERNA

Egueroko, inguratzen gaituena, berezi bihurtu gura duen ikuskizuna da Gasteizko Bapateanzirko taldeak, gaur, Berrizen aurkeztuko duena: lagun bi eta botila bat taberna batean.

**> ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztieneko 14:00ak arteko epea



> **Ainhize Basterretxea**. Abuztuaren 24an bost urte egin zenituen: Zorionak! Musu handi bat Elorrioko aitita eta amamaren partez. Beti bezain maitagarri jarraitu dezazula.



> **Egoitz Basterretxea** 18an bederatzirte egin ditu. Zorionak! Besarkada bat, Elorrioko aitita eta amamaren partez.



> **Izar** gure bonboiak 3 urte egin zituen domekan. Zorionak eta segi aurrera! Musuak!



> Irailaren 23an marisorgin honek zazpi urte beteko ditu. Zorionak **Elia!** Jarraitu hain alai izaten.



> Zorionak **Jon!** Konturatu orduko urte 1 bete dozu irailaren 14an. Eskerrik asko familia osoari eskaintzen diguzun momentu zoriontsuengatik, nahiz eta, oso bihurria zaren. Musu bat!



> **Amatzako argazkilaria** eta **Durangoko txistularia** 21 urte beteko dabez astion. Mosu haundi-haundi bana hippien partez! Ganoraz ospatuko dogu Goienen!



> Zorionak **Aritz!** Maite zaitugun denon partez.



> Zorionak **neskatila!** Ondo pasa eguna etxeko eta laguntxoekin! Muxuak!



> **Bio** eta **Maier** Urkuletako bi izar disdiratsuri beraien urtebetetzean, irailak 20 eta 23an, zorionak! Eta ondo pasa oporretan!



> Zorionak **Ibai!** Irailaren 20an 7 urte bete ditu. Aupa txapeldun! Zorionak eta musuak denon partez!



> Gure etxeko **sorgin txikixek** bost urte egin ditu. Zorionak etxeko guztion partez. Bost musu goxo!



> Zorionak **Xixili** eta **Katalin** danon partez! Ondo pasatu eguna. Toma toma tomaaaaa!



> Irailaren 23an **Eneko**k bere lehenengo urtetxoa beteko du, eta bere aita **Aitor**rek 30 urte. Zorionak bio! Eta irailan urteak bete dituzuenoi muxu handi bana.



Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

> Hamabostean behin jasotako zorion agurren artean tarta bat zozkatzen dugu. Horretarako, beharrezkoa da zorion agurrarekin batera kontakturako datuak bidaltzea.

**> BOTIKAK**

- BARIKUA, 20** - 09:00-09:00  
 • **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO) 09:00-22:00  
 • **JAIO-OLABARRIETA** (ERREKA 6 - ELORRIO)  
**ZAPATUA, 21** - 09:00-09:00  
 • **DE DIEGO** 09:00-13:30 (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)  
 • **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)  
 • **MUGICA** (ANDRA MARIA 9 - DURANGO)  
 • **NAVARRO** (ARTEKALE 6 - DURANGO)  
 • **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)  
 • **UNAMUNZAGA** (MURJETATORRE 2C - DURANGO)  
 • **SAGASTIZABAL** (ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)  
 • **BAZAN DIAZ** (URIBARRI 5 - DURANGO)  
 • **JAIO-OLABARRIETA** (ERREKA 6 - ELORRIO)  
 • **URIZAR** 09:00-14:00 (GABIOLA 2 - BERRIZ)  
 • **IRIGOIEN** (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA)  
**DOMEKA, 22** - 09:00-09:00  
 • **MUGICA** (ANDRA MARIA 9 - DURANGO)  
**ASTELEHENA, 23** - 09:00-09:00  
 • **NAVARRO** (ARTEKALE 6 - DURANGO) 09:00-22:00  
 • **URIZAR** (GABIOLA 2 - BERRIZ)  
**MARTITZENA, 24** - 09:00-09:00  
 • **SAGASTIZABAL** (ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)  
**EGUAZTENA, 25** - 09:00-09:00  
 • **GAZTELUMENDI** (J.A. ABASOLO 2 - DURANGO) 09:00-22:00  
 • **LARRAÑAGA-BALENTZIAGA** (BERRIO OTXOA 6 - ELORRIO)  
**EGUENA, 26** - 09:00-09:00  
 • **ETXEBARRIA** (MONTEBIDEO 2 - DURANGO)

**> TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak ..... 112  
 Gurutze Gorria ..... 94 681 09 49  
 Osakidetza ..... 94 600 72 00  
 Ertzaintza ..... 94 466 93 00

**> GARRAIOAK**

- Euskotren ..... 902 54 32 10  
 Bizkaibus ..... 94 448 40 80  
 Pesa ..... 902 10 12 10  
 Continental Auto ..... 945 286 466

**> TAXIAK**

- Abadiño ..... 94 681 44 70  
 Matiena ..... 606 459 988  
 Durango geltokia ..... 94 681 10 01  
 Elorrio geltokia ..... 94 682 00 40  
 J.L. Uriarte ..... 670 402 002  
 I. Estebez ..... 670 678 273  
 M. Galeano ..... 670 409 330  
 Iurreta taxi auzunea ..... 688 618 690  
 Berrizko auzo taxia ..... 620 022 800

**> EGURALDIA**

|                                |                                |
|--------------------------------|--------------------------------|
| 13°<br><b>21°</b> ZAPATUA ☁    | 12°<br><b>24°</b> DOMEKA ☀     |
| 13°<br><b>29°</b> ASTELEHENA ☀ | 12°<br><b>27°</b> MARTITZENA ☀ |

**> UDALAK**

- Abadiño ..... 94 621 55 30  
 Atxondo ..... 94 682 10 09  
 Berriz ..... 94 682 45 84  
 Durango ..... 94603 00 00  
 Elorrio ..... 94 658 27 12  
 Garai ..... 94 681 63 93  
 Iurreta ..... 94 620 12 00  
 Izurtza ..... 94 681 35 48  
 Mallabia ..... 94 317 14 61  
 Mañaria ..... 94 681 89 98  
 Otxandio ..... 94 545 00 20  
 Zaldibar ..... 94 682 70 16

**> UDALZAINGOA**

- Abadiño ..... 94 621 55 33  
 Berriz ..... 94 682 40 36  
 Durango ..... 94 603 00 00  
 Elorrio ..... 94 682 02 18  
 Iurreta ..... 94 620 08 88

**> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA**



**Abadiño (Traña-Matiena)**  
Eguaztenetan  
10:00etatik aurrera  
**Durango**  
Zapatu goizetan  
**Zornotza**  
Domeka goizetan

**ASTEKO SALNEURRIAK:**

Letxuga ..... 0,80 euro  
 Letxuga haritz hostoa ..... 1 euro  
 Azelga ..... 2 euro/kg  
 Espinaka txorta ..... 1,20 txorta  
 Berakatz freskoa ..... 1,50 txorta  
 Ilarrak ..... 6 euro/kg  
 Tomate kontserba ..... 3,90 euro/potea  
 Arrautzak ..... 3,80 euro/dz  
 Idiazabal gazta ..... 17 euro/kg  
 Gari integraleko ogia ..... 3,30 euro



## “Sevillanek oilo larrua jartzen didate, Benito Lertxundiren antzera”

Urriaren sevillana ikastaroak emango ditu Iturri kultur etxean. Sagar mugimendurik ez, hori mitoa dela dio

### > AMAIA UGALDE

Elkarrizketa hasi baino lehen, kuriositateagatik kultur etxera deitu du galdetza, eta ezustekoa! Dagoeneko hamabost pertsonen eman dute izena berarekin sevillanak ikasteko. Ez zuen horrenbeste espero. Elorriko Matzorri okindegitik eza gutzen du jende askok Isa Garcia. Urteak daramatza sevillana dantzekin gozaten.

Zelan, bada, sevillana irakasle? Lagun talde bat beti ibili zait eskatzen sevillanak dantzatzeko. Nik duela urte mor-do bat egiten dut dantza. Baina ikusten nuen ez neukala lekurik, denborarik... Iaz mugitzen hasi ginen, baina berandu ibili ginen. Aurten, kultur etxean galdetu, eta aurrera joan da. Nik, egia esan, ez neukan argi taldea sortuko zenik.

Hamabost pertsona animatu dira, bada!

Ezustekoa izan da, bai, zortzi edo hamar pertsona agian bai, baina ez nuen pentsatzen horrenbeste jende animatuko zenik. Sevillanak hemen ez dira asko entzuten...

Noiz sartu zinen sevillanen mundura?

Aspaldi! Hamabost edo hogeit urte izango dira. Ni oso dantzazalea naiz, dantza guztiak gustatu izan zaizkit, salsa, merengea, batxata... denak. Baina sevillanak dantza egiteko pauso zehatz batzuk ikasi egin behar direnez, ikasten hasi nintzen. Gero, Durangon azokaren bat egiten badute, jai bereziren bat badago, edo sevillanak jartzen dituzten leku bat badago, hara joaten naiz.

El Rocioko jaira (Almonte, Huelva) ere joaten zara.

Bi urtetan joan naiz. Itzela da hangoa, esperientzia itzela. Ez sevillanak dantzatzeko direlako bakarrik, e? Guk El Rocio herrixkarako bidea ere egin dugu, egun batez. Aste osoko jai izaten da; kantuan, dantzatan... Hango giroa asko gustatzen zait.

Hangoen antzeko estiloa daukazu dantzari?

Batzuek ez dute sinesten hemengoak garenik. Hemezortzi emakume joaten gara. Deustuko nire lehengusina bategaz, eta bere dantza-lagunekin joaten naiz. Ez dute sinesten: “Billbokoak? Hemengo batzuek baino hobeto egiten duzue dantzatan eta!”

Zuretzako zergatik dira bereziak sevillanak?

Askok gustatzen zaizkit, eta oilo larrua ipintzen didate. Baina berdina pasatzen zait Benito Lertxundigaz, e? Ez da sevillanak leku batekoak direlako edo flamenkoa direlako; ni ez naiz andaluziarra. Musika mota batzuek gehiago hunkitzen naute, zer edo zer sentiarazten didate, eta tartean sevillanek, ukitu egiten naute. Flamenkoa ere betidanik gustatu izan zait, agian aitak entzuten zuelako.

Dantza pausoak ikasteko gaitzak dira?

Ikasi egin behar dira, eta bai, denboratxo behar da. Ez da salsa moduan, adibidez, musika entzun eta gorputza haren erritmora doala. Pauso oso zehatzak dituzte sevillanek, tangoaren moduan. Ikastea kostatu egin daiteke, baina behin pausoak ikasita, asko gozaten duzu.

Pausoetarako sagarraren jokoak benetakoa da? Sagarra hartu, sagarra jan eta sagarra bota...

Hori mito bat da! Eskuak jiratu behar dira, bai, baina andaluziar batek esango dizu sagarraren kontua ez dela benetakoa. Eskuaren mugimenduetatik asmatu den zer edo zer da, baina asmakizun hutsa da!

Gogotsu zaude dantza eskolak ematen hasteko?

Egiten dakidana irakatsiko diet nik, ez naiz ez dakit zelako irakaslea izango. Euren nik gozatzen dudun moduan gozatzea gustatuko litzaidake. Pausoak ikasi ditzatela. Hasieran, agian pixka bat sufritu egingo dute. Nik inoiz jendea negarrez ere ikusi dut, “nik hau ezin dut ikasi, ezinezkoa da” esanez. Eta, gero, erakusketetan eta guzti egin dute dantza. Mundu guztiak ikasi dezake sevillanak dantzatzeko. Jende nagusiak ere ikasi du, pausoak memorizatzea gehiago kostatu arren.

Okindegian zer esan dizute bezeroek?

Uste dut jende askok jakin duela dantzetan nabilela. Gabonetan Kainaberaren jaialdian ere parte hartu izan dut, eta azkenean leku publiko baten ikusi naute. Jende askok daki mundu hori gustatzen zaidana. Inauterietan, gainera, okindegian beti flamenko, kordobar edota *rociera* jantzita ikusi izan naute.



### Aitormena

Beti izan zaitut bizilagun eta lagun. Baso bete ur eskatze-lehenago zuregana hurbiltzen ziren haurrak gero nire txorrotatik edaten hasi zirela eta jelskor samar sentitu zintudan hasieran. Gero, baina, zure biltegiko ziri luzei esker beste inork baino hobeto zaindu nauzue. Hurbileko erlazio bizi gehientsuenak lez maitasun-gorroto harremana geurea ere. Guztiarekin ere, zurekiko dudan sentipenik argiena miresmena dela aitortu beharra daukat.

Entzuna daukat, aspaldi, lur jota erortzeaz zeundela Bautista Uribe eta beste hainbat ameslari borrokalarik jasozintuztela. Eta harrezkerro herriko harribitxi bihurtu zara. Harrezkerro beharra izen duten talde eta pertsonen non bildua izan dute; Durango eta Euskal Herri justuago baten alde lanean dihardutenen babesleku zara. Baina, horrexegatik, hain zuzen, askotariko polizia ugari ezagutu behar izan duzu, eta behin baino gehiagotan miatu zaituzte.

Orain ere, bake garaian omen gauden honetan, epaile espainol tortura-eragileen jomugan jarraitzen duzu, eta urte luzeetan zure ardurara eduki dutenei Madrilera joateko deia iritsi zaie. Guztira 76 izango dira urritik aurrera Espainiako Auzitegi Nazionalak epaituko dituen Euskal herritarrik; Herriko Tabernek lotuta batzuk eta Segiko kide izateagatik besteak. Jakin ezazu iturri ingurura hurbiltzen diren guztiak animatuko ditugula epaiketen bidez gatazka betikotzeko duten asmoei aurre egitera: elkartasunetik konpromisora!



## MATRIKULA IRAIL OSOAN

CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)  
Doako irakaskuntza ofiziala



**MATRIKULA ZAITEZ**  
94 681 42 53  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

**IRAKASKUNTZA ARAUTUA**  
- Atzerritarrentzako gaztelania  
- II. GRADUA (Lehen Hezkuntza)  
- DBHko graduatua

**IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA**  
- Unibertsitateko sarbide-proba  
- Goiko zikloetarako sarbide-proba  
- Informatika (hasiera maila)  
- Euskara / ingelesa (hasiera maila)

Beste jarduera batzuk: kultur ekitaldiak, irteerak...

**Matrikula egiteko ordutegia:**

Astelehenetik ostegunera: 09:00-12:00/15:30-20:00. Ostiraletan: 09:00-12:00.